



Emakume eta gizonen egoeraren diagnosis eta lan ildoak Donostiako kirol esparruan

2011ko abendua

AURKIBIDEA

I. ATALA: DIAGNOSIA

1. Sarrera	9
2. Helburua eta metodologia	11
3. Emakume eta gizonen egoeraren azterketa Donostiako kirol esparruan	15
3.1 Donostiako Kiroletako Udal Patronatua	16
3.1.1 Egitura	16
3.1.2 Udal instalazioak.....	20
3.1.3 Kirol politika diru-laguntza bitartez	24
3.1.4 Lengoia, irudiak eta sexismoa KUPen	38
3.2 Partaidetza kirola	42
3.2.1 Abonuak	42
3.2.2 KUPek eskaintzen dituen jarduerak	46
3.2.3 KUPez kanpozkoko parte hartzeko kirola	50
3.3 Eskola kirola	52
3.4 Errendimenduko kirola	60
3.5 Goi mailako kirola	69
3.6 Kirol jarduerak.....	75
4. Ondorioak	86
5. Bibliografia	92
I ERANSKINA: KUPen Diru-laguntza Oinarrien azterketa	94

II. ATALA: LAN ILDOAK

1. Kiroletako Udal Patronatua.....	112
2. Partaidetza kirola.....	115
3. Eskola kirola	116
4. Errendimenduko kirola	117
5. Goi mailako kirola	118
6. Kirol jarduerak	119

TAULA, GRAFIKO ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

TAULAK:

1. Proiektuan erabilitako informazio bilketarako teknikak	13
2. Talde dinamiketan partaide izan direnak ezagutzeko kanalak	14
3. 2010eko Donostiako biztanleria adin taldeka eta sexuaren arabera	15
4. KUPen Artezkaritza-Kontseiluaren egitura	16
5. KUPen egitura funtzionala.....	17
6. Donostiako kirol gunek	20
7. Donostiako jarduera eremuak	23
8. KUPen 2011ko gastuen aurrekontua Kapituluka	25
9. KUPen Diru-laguntza Oinarrien eranskinak eta 2011rako aurreikusitako gastua	26
10. 2010ean eskola kiroleko teknikarien trebakuntza jardueretarako emandako diru-laguntzak.....	28
11. 2010ean II eranskinaren bidez emandako diru-laguntza kirol modalitateen arabera.....	29
12. Jarduera berezientzako emandako diru-laguntzak modalitatearen eta zenbatekoaren arabera.....	31
13. Diru-laguntza Oinarrien II. eranskinean aztertutako atalen laburpena.....	35



14. Diru-laguntza Oinarrien II. eranskinean aztertutako atalen laburpena	35
15. Diru-laguntza Oinarrien II. eranskinean aztertutako atalen laburpena.....	35
16. KUPen dokumentazioan erabilitako lengoaia	38
17. Kirol Txartelako harpidedun den Donostiako biztanleriaren ehunekoa adin taldeka eta sexuaren arabera	43
18. 2011ko abuztuaren 1ean Kirol Txartelako harpidedun zirenak adin taldeka eta sexuaren arabera.....	44
19. KUPek igerilekuetan eskaintzen dituen jarduerak	46
20. KUPek aretoetan eskaintzen dituen jarduerak	47
21. 2010/2011ko Kirol Ekintzak kanpainako partaidetza sexuaren arabera	48
22. 2010/2011ko Donostiako Eskola kiroleko jardueren programa	52
23. 2009/2010eko Donostiako Eskola kiroleko programan izandako partaidetza.....	53
24. 2008/2009ko lizentzia federatuak modalitatearen eta sexuaren arabera	60
25. 2008/2009ko kirolarien lizentzia federatuak kategoría eta sexuaren arabera	65
26. 2011/2012 Kanpainan Kirolgi Fundazioaren laguntzak	70
27. 2010ean Donostiako Udalak kirol jarduera berezietarako emandako diru-laguntzak	75
28. 2010ean antolatutako kirol jarduera bereziak modalitatearen arabera	78



29. 2010ean antolatutako kirol jarduera bereziak hilabeteka	80
---	----

GRAFIKOAK:

1. 2010eko Donostiako biztanleria adin taldeka eta sexuaren arabera	16
2. KUPeko egitura funtzionalean dauden emakume eta gizon kopuruaren portzentaia	17
3. Kirol Aholku-kontseiluan dauden emakume eta gizon kopuruaren portzentaia	18
4. 2011ko KUPen aurrekontuaren banaketa Kapituluka.....	25
5. 2011ean diru-laguntzetarako aurreikusitako zenbatekoaren banaketa diru-laguntza ildoaren arabera	27
6. 2011ean ezohiko ospakizunetarako aurreikusitakoaren zenbatekoaren banaketa kirol modalitatearen arabera	32
7. Kirol Txartelaren harpidedunen portzentaia sexuaren arabera	45
8. 2011ko Kirol Txartelako harpidedunak adin taldeka eta sexuaren arabera	45
9. 2010/2011ean KUPek eskainitako jardueretan izandako partaidetza sexuaren arabera	48
10. 2009/2010eko Eskola kiroleko programan izandako partaidetza sexuaren arabera.....	53
11. 2009/2010eko Eskola kiroleko programan parte hartu duten kirolariak	54
12. 2008/2009ko Donostiako lizentzia federatuen portzentaia sexuaren arabera	61
13. 2008/2009ko nesken lizentzien banaketa modalitatearen arabera.....	62



14. 2008/2009ko mutilen lizentzien banaketa modalitatearen arabera.....	63
15. 2008/2009ko lizentzia federatuen portzentaia kategoriaren eta sexuaren arabera	64
16. 2010eko kirol jarduera berezien kopurua modalitatearen arabera.....	79
17. 2010eko kirol jarduera berezien kopurua hilabeteka	81

IRUDIAK:

1. 2009an egindako Barclays Fundazioaren II Txapelketaren kartela	39
2. 2010eko Donostiako Nazioarte mailako Triatloi Txapelketaren kartela	40
3. 2010eko ATE Padel Txapelketako kartela.....	40
4. KUPek diru-laguntza bidez babesten dituen ekintzen aurkezpena web orrian	41

I. ATALA: DIAGNOSIA

1. Sarrera

Gizarteko beste hainbat arlotan bezalaxe, jarduera fisikoa eta kirolaren eremuan aldaketa handiak gertatzen ari dira. Kirol esparruko maila guztietan emakumearen partaidetza areagotzeak zerikusia izan duen arren, oraindik ere kirola egiten hasteko aukerak eta baldintzak berdinak izatea oztopatzen duten zailtasun ugari daude.

EAEk aukera zabala eskaintzen du Berdintasun Politiken planteamenduari dagokionez 1988an Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea sortu zenetik eta 1991ean **Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiborako I. Plana** (PAPME) onartu zenetik. Orduetik eta gaur arte, Euskadiko Parlamentuak lau Berdintasun Plan onartu ditu guztira eta guztiek hartzen dituzte kultura eta kirola esku-hartzerako gizarte arlo bereizi gisa. Plan hauetan kirol esparruan emakumeen partaidetza sustatzeko ekintzak zehaztu dira, esparru honetan dauden eragozpen edo oztopoak deuseztatu eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen dituzten neurriak ezarri dira.

Donostiako Udalak 2008ko abenduaren 19an onartu zuen **2008-2013 Emakumeen eta gizonen II Berdintasun Planean** ere kirolerako esku-hartze atal bat dago. Honakoak aipatzen dira, besteak beste, Planean: nerabeek kirol uzterako duten joera, generoen arteko aldea kirol federatuan eta goi mailako lehiaketan, ikuspena eta nesken kirol modalitateen onarpena, emakumeen presentzia erabaki-hartze lanpostuetan eta kirol erakundeetako zuzendaritzetan eta hedabideen ardura kirola eta emakume kirolarien berdintasun irudi eta irudi plurala igortzeko.

Kirolari dagokion atalean hiru jarduera programa barneratzen dira: Mainstreaming edo berdintasun ikuspegiaren zeharkakotasuna, ahalduntzea eta emakumeen partaidetza soziopolitikoa, emakumeen kontrako biolentzia. Hiru ardatz hauek kontuan hartuta hiru helburua eta 13 ekintza zehazten dira esparru honetan dauden desberdintasunak zuzentze aldera.

Aldi berean, Planak zeharkako izaera duten zenbait neurri biltzen ditu, Udaleko esku-hartze arlo ezberdinetan genero ikuspegia barneratzeko. Horrela, Udal Gobernu-batzordeak jarraibide



batzuk onartu¹ zituen sailei eta sailen ardurapean zeuden erakundeetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako zeharkako neurriak ezartzeko. Honakoak: 1.Barne eta kanpo komunikazio ez sexista; 2. Datu sozialak eta genero ikuspegia; 3. Berdintasunaren sustapena diru-laguntza bidez; 4. Berdintasunaren sustapena aitortpen, sari eta ondasun kultural eta artistikoen jabetza bidez.

Planean zehaztu ziren ekintzak eta aipatutako zeharkako barne neurriak abiapuntutzat hartuta, Berdintasun Sailari beharrezkoa iruditu zitzaion Donostian zeuden kirol praktika ezberdinen azterketa egitea, emakumeen kirol praktikarako egon zitezkeen oztopoak ezagutzeko, arreta kirol esparruko eragileen eta emakumeen pertzepzio eta iritzian jarrita.

Horrela, 2011ko urtarrilean, Donostiako Udala Aventurekin harremanetan jarri zen laguntza teknikorako proposamena eskatuz, **Donostiako kirol esparruan emakumeen eta gizonen egoeraren diagnosis egiteko, lan ildoak ezartzeko eta esparru honi dagozkion zeharkako ekintzen inplementazio prozesuan aholkua jasotzeko**. Txosten hau ekimen honen emaitza da.

¹ Udal Gobernu-Batzordearen erabakia, 2010eko azaroaren 23an hartua.

2. Helburua eta metodologia

• Helburua

Proiektu honen helburu nagusia Donostiako emakumeek egiten duten kirolaren errealitatea ezagutzeko izan da, kirol esparruan dauden zailtasun eta oztopoak identifikatu eta diren neurri zuzentzaileak *Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Egoeraren II Planean* azterketa honetatik sortzen barneratzeko.

Donostiako kirol sistemaren baitan dauden kirol praktika mota ezberdinak kontuan izanik, azterketa emakumeek jarraian zehazten diren esparruetan egiten duten kirolera mugatu da:

- Eskola kirola.
- Errendimenduko kirola.
- Goi mailako kirola
- Parte hartze/aisialdiko kirola.
- Kirol jarduerak.

Helburua lortzeko, aipatutako esparruen azterketa egin da genero ikuspegi batetik emakumeen eta gizonen egoera ezagutzeko. Batetik praktikarako dauden oztopoak edo egoera diskriminatzaileak identifikatu nahi izan dira; eta, bestetik, behin beharrak identifikatu ondoren, etorkizunerako lan ildoak definitu dira, biharko egunean Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen egoeraren III Planean txertatzeko edo II Plana indarrean dagoen bitartean garatzen diren Plan Eraginkorretan zenbait ekintza barneratzeko.

Aipatutako esparru zehatzez gain, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren (aurrerantzean KUP) atal zehatz bat gaineratu da, batez ere, erakunde honetan genero ikuspegiaren integrazioa zeharkako ekintzen bidez inplementatzeko.

• Metodologia

Ikerketa hau egiteko erabilitako metodologia **eredu mistoan** oinarritu da, hots, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak nahastu dira. Donostiako kirol praktikaren inguruko datu kopurua kontuan hartuta, komenigarria zen aztertu beharreko esparru bakoitzaren errealitatea ezagutzeko parte hartze prozesu ezberdinak antolatzea –talde dinamikak- edota esparru bakoitzeko eragile nagusiak elkarriketatzea. Horrez gain, badira beste bi arrazoi proiektua metodologia kualitatiboetan oinarritzeko: batetik, esparru honetako partaidetzan dagoen generoen arteko aldea ezagututa, datu kuantitatiboek ezagutzera eman ezin ditzaketen desberdintasunak ezagutu eta identifikatu ahal direlako eta, aldi berean, desberdintasun egoera hauetan sakondu; eta, bestetik, Donostiako Udaleko Berdintasun Departamentuak ezinbestekotzat jo zuelako emakumeen partaidetza prozesu guzti honetan, beraien pertzepzio eta esperientzien inguruko informazio biltzeko eta epe motzera gogoeta-talde eta lan-talde egonkor bat sortzeko, Donostiako kirol esparruan berdintasuna lortzeko helburua duten jarduera ezberdinak gauzatu.

Bestalde, txostenean erabilitako datu kuantitatiboek esparru zehatz bakoitzerako egindako datu kualitatiboan azterketatik ateratako ondorioak indartu, egiaztatu eta testuinguru zehatz batean kokatzeko balio izan dute.

Ondoren, informazio bilketarako erabilitako teknika ezberdinak eta edukiak aurkezten dira:

1. Taula. Proiektuan erabilitako informazio bilketarako teknikak

	TÉKNIKA	KOP	INFORMATZAILEA	EDUKIA
DATU Kuantitatiboak	---	---	Donostiako Kirol Patronatua (KUP)	KUPen osaketa, harpidedun kopurua adin taldeka eta sexuaren arabera, eskainitako jardueren partaidetza sexuaren arabera, Artekharitza-kontseiluaren egitura.
			www.gipuzkoa.net (Kirolbegi) WEBa	Donostiako biztanleriaren datuak, eskola kiroleko partaidetzako datuak, lizentzia federatuen datuak.
			www.donostia.org WEBa	Donostiako biztanleriaren datuak, instalazioen inguruko datuak, instalazioen araudia, diru-laguntzen oinarriak eta ebazpenak.
DATU Kualitatiboak	Elkarrizketa erdi-egituratuak	1	Donostiako Kirol Patronatuko teknikariak	Proiektuaren aurkezpena eta metodologia, Donostiako kirol esparruan emakumeen partaidetzaren inguruko pertzepzioen iritzi trukaketa.
		1	Eskola kiroleko teknikaria	Udaleko kirol politika nesken partaidetza sustatzeko eskola kirolean talde dinamikak antolatzeke eragileen identifikazioa.
	Talde dinamikak ²	1	Parte hartzeko kirola	Adina, egiten dituzten jarduerak, kirol esperientzia, sumatutako desberdintasunak tipologiaren arabera, instalazioen inguruko iritzia, kirol guneen erabilpena sexuaren arabera, eskaintzari buruzko iritzia, kanpoko kirol guneak. Emakumeak eta kirola, aukerak, inguruko pertsonen ohiturak, gorputzaren gurtza eta onura psikologikoak.
		1	Eskola kirola	Helburuak; egungo eskaintza, planifikazioa, antolaketa eta koordinazioa; partaidetza; begiraleen profesionalizazio maila; klubaren implikazioa, gurasoak; hezkidetzak, ereduak.
		1	Goi mailako kirola	Goi mailako kirolarien egoera, arazoak eta oztopoak, emakumeak beste mailatan (epaileak, entrenatzaileak, kudeaketa lanetan dabilzanak), instalazioak, klubaren egoera, Udalaren diru-laguntzak, ezagutzera eman, aintzatespena, hedabideak.
		1	Kirol ospakizunak	Donostiako ezohiko ospakizunetan emakumeen partaidetzak izandako eboluzioa, partaidetza sustatzeko ekimenak, hartutako neurrien balorazioa, beharrak, diskriminazio egoeren identifikazioa, partaidetza sustatzeko proposamenak.
		1	Kirol federatua	Adinak; klubetan izandako esperientzia, oztopoak edo sumatutako diskriminazio egoerak; hautatze, parte hartze eta kirol uztean dauden desberdintasunak emakume eta gizonen artean; babes soziala; erreferenteak, inguruko laguntza; instalazioak.
	Galdeketa erdi-egituratuak	5	Parte hartzeko kirola	Donostiako hiri gune edo gune naturaletako kirol praktika, irisgarritasuna eta argiztapena gune hauetan, gizon eta emakumeen kirol praktika Donostian, kiroldegietako eskaintzaren balorazioa, instalazioen egoera.

ITURRIA: Norberak egina

Azterketa gauzatzeko esparru zehatz bakoitzeko eragileak identifikatu eta ezagutzeko komunikazio-kanal ezberdinak erabili dira. Ondorengo taulan zehazten dira:

² Donostiako kirol esparru ezberdinetako 25 pertsonekin egindako talde dinamika.

2. Taula. Talde dinamiketan partaide izan direnak ezagutzeko kanalak

ESPARRUA	IDENTIFIKATZEKO ITURRIA
Parte hartzeko kirola	<i>Lilatonean parte hartu zuten emakume guztiei gonbidapena luzatu zitzaien eta Donostiako Udaleko Emakumeen Etxean beste jarduera batzuetan aritzen diren eta kirolarekin lotura duten emakumeei.</i>
Eskola kirola	KUPen eskola kiroleko programako arduradunaren bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez proiekturako pertsona funtsezko ziren pertsonak ezagutu ziren.
Goi mailako kirola	Donostiako goi mailako emakumezko taldeen solaskideei gonbidapena. Kirolariak eta taldeak aukeratzeko irizpideak honakoak izan dira: Euskadi Kirola Fundazioa <i>BAT Basque Team beka bat izatea edo/eta Estatuko kategoria gorenean lehiatzea. Gonbidapena kazetari eta komunikabideei.</i>
Kirol ospakizunak	Donostian kirol jarduera bereziak antolatzen dituzten erakundeei gonbidapena luzatu zitzaien ondorengo irizpideen arabera: tradizioa, erakundeak antolatzen dituen kirol ospakizun kopurua, partaide kopurua, emakumeen partaidetza maila, e.a.
Errendimenduko kirola	Donostiako klubetan kirol federatuan aritzen diren emakumeei gonbidatu zitzaien (Atlético Bera Bera R.T., Club Atlético SS y C.D. Fortuna K.E.) eta baita Donostiako Udaleko Emakumeen Etxean beste jarduera batzuetan aritzen diren eta kirola egiten duten emakumeei ere.

ITURRIA: Norberak egina

Esparru bakoitzean dauden beharrak edota ezberdintasunak identifikatzeko egindako talde dinamikien ondoren, esparru bakoitzean sortutako proposamenak alderatu egin dira dinamika bakoitzean parte hartutako pertsonekin.

Donostiako Udaleko Berdintasun Agenteekin izandako harremana etengabekoa izan da prozesu guztian zehar; batetik, beharrezko informazio helarazi dutelako, hiriko kirol esparruko eragileen kontaktuak erraztu dituztelako eta informazio bilketa kualitatiboa egiterakoan era proaktibo batean hartu dutelako parte. Bestetik, proiektuan emandako unean uneko urrats guztien berri eman zaielako.

Informazio bilketarako erabilitako ereduak, elkarrizketen gidoiak, galdeketa eta taldeetan egindako talde dinamikak Auentok berak eginak izan dira.

3. Emakume eta gizonen egoeraren azterketa Donostiako kirol esparruan

Donostiak guztira 186.179 biztanle ditu, 98.884 emakume eta 87.295 gizon, ondorengo adin taldeetan banatuta:

3 Taula. 2010eko Donostiako biztanleria adin taldeka eta sexuaren arabera


ADINA ³	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
1-10	8.466	8.971	17.437
11-20	7.439	7.962	15.401
21-30	10.245	10.013	20.258
31-40	14.028	13.965	27.993
41-50	15.266	14.188	29.454
51-60	14.167	12.584	26.751
61-70	11.802	9.901	21.703
71-80	9.477	6.432	15.909
80+	7.994	3.279	11.273
GUZTIRA	98.884	87.295	186.179

ITURRIA: Norberak egina Donostiako biztanleriaren sexu eta jaiotze dataren arabera datuak erabilia. Gipuzkoako Foru Aldundia www.gipuzkoa.net

Donostiako biztanleriaren %53 emakumea da. Biztanle kopuruaren arabera, adin tarte nagusia, bai emakume bai gizonen artean, 41 eta 50 urte artekoa da. Emakume gehien dagoen hurrengo adin tarte 51 eta 60 urte artekoa da, baina gizonena, ordea, 31 eta 40 urte artekoa da.

³ Kasu honetan adin tarte hauek aukeratu dira KUPek harpidedun kopuruaren azterketa egiteko adin tarte hauetan banatzen duelako biztanleria, hain zuzen ere.

1 Grafikoa. 2010eko Donostiako biztanleria adin taldeka eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Emakume kopurua 21 urtetik goragoko adin taldeetan handiago da.

3.1. Donostiako Kiroletako Udal Patronatua

3.1.1. Egitura

Donostia Kirola, Kiroletako Udal Patronatua (KUP), Donostiako Udaleko erakunde autonomoa da. Egun Patronatuko artezkaritza-kontseilua 10 gizonek osatzen dute.


4 Taula. KUPen Artezkaritza-kontseiluaren egitura

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Lehendakaritza	0	1
Lehendakariordetza	0	1
Bokalak	0	8
GUZTIRA	0	10

ITURRIA: www.donostiakirola.org

KUPen egitura funtzionala 81 pertsonen osatzen dute, 56 emakumek (%56,7) eta 25 gizonen (%43,3).

2. Grafikoa. KUPen egitura funtzionalean dauden emakume eta gizon kopuruaren portzentaia



ITURRIA: Norberak egina

Emakumeen portzentaia handiagoa da gizonena baino KUPen egitura funtzionalean.

5 Taula. KUPen egitura funtzionala

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Artezkari-tza-kontseilua	0	10	10
KUPeko langileak	56	14	70
KUPeko kudeaketa lanak egiten dituzten langileak	0	1	1
GUZTIRA	56	25	81

ITURRIA: Donostia Kirola eta www.donostiaKirola.org


Datu hauek islatzen duten informaziorik garrantzitsuena da artezkari-tza-kontseiluan, erakunde honetako zuzendaritza organo nagusian, emakumerik ez dagoela. Udaleko kirol langileen artean emakume kopurua, ordea, gizonena baino handiagoa da nabarmen. Nabarmentzekoa da KUPen kudeaketa emakume baten gain dagoela. Hark artezkari-tza-kontseiluan parte hartzen du, baina funtzionalki ez da haren parte.

Donostiako Udalak Kiroleko Aholku-Batzordea du 2008ko apirilaz geroztik “*sektorerako partaidetza organo aholku emaile gisa*”. Eginkizunen artean ditu: “*Informatzea eta eztabaidatzea,*

proposamenak egitea, kontsultak egitea eta aholkuak ematea, Donostiako herritarrak kirolean ari daitezela sustatzeari dagokionez”⁴. Besteak beste, ondorengo helburuak ditu: “Lan programak eta neurriak sustatzea, oro har kirol jardunaren bidez etorkinak gizartekotzen laguntzeko” eta “kirol arloan euskararen erabilera normalizatzen laguntzeko neurriak ezar daitezen sustatzea”⁵. Hala ere, araudi honek ez du zehazki hiriko kirol esparruan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko beharra aipatzen.

Udaleko Kiroleko Aholku Batzordea ondorengo organoek osatzen dute: Osoko Kontseilua, Lehendakaritza, Lehendakariordetza, Idazkaritza eta Lan Batzordeak. 34 pertsonak osatzen dute (26 gizonak eta 8 emakumeak) eta Donostiako kirol esparruan dauden atal ezberdinetako erakundeetako ordezkariak dira. Besteak beste, lizentzia federatuak dituzten klubak, udal kirol instalazioak kudeatzen dituzten kirol elkarteak, ikastetxeak, KUPen Kirol Txartelaren harpidedunak, hiriko gimnasio pribatuak, hiriko kirol ospakizunak antolatzen dituzten erakundeak, e.a., dauden ordezkariak. Aldi berean, Udaleko arlo ezberdinetako ordezkariak partaidetza ere aurreikusten du Araudiak: Gizarte Ongizatea; Gazteria, Hezkuntza eta Berdintasuna; eta Euskara⁶. Garrantzitsua da aipatzea azken hirurek ordezkariak dutela hitzarekin baina botorik gabe.

3 Grafikoa. Kirol Aholku-Kontseiluan dauden emakume eta gizon kopuruaren portzentaia



ITURRIA: Norberak egina

⁴ Donostiako Udaleko Kiroleko Aholku Batzordearen Arautegia. GAO, 124 zk., 2008ko ekainak 30. Erabilgarri www.donostia.org orrian (Kontsulta 2011ko abenduan egina).

⁵ Ibid.4

⁶ Ibid 4.

Kiroleko Aholku Batzordeko Arautegiak honakoa dio: *“Kiolari loturik dauden eta Kiroleko Aholku Batzordera etortzeko interesa agertzen duten erakunde eta elkarten ordezkariak etorri ahalko dira, batzordeburuak gonbidatuta, nahiz eta aurreko kategoria horietan sartuta ez egon. Ordezkari horiek, uneko aztergaietan duten esperientzia dela eta, balio gehigarria eskaini beharko diote batzordeari. Ordezkari horiek txandakakoak izango dira, eta saio bakoitzean ezingo dira hiru baino gehiago izan.”*⁷. Horrenbestez, Aholku Batzordeak udal kirol esparruan ekarpenak egin ditzakeen beste pertsona batzuen partaidetza aurreikusten du, gonbidapen bidez.

Garrantzitsua da Batzorde honetan aurreikusten diren arlo guztietan emakumeen ordezkariak parte hartu dezaten bermatzea, bai hitzez parte hartu dezaketen arloetan, bai hitzez eta botoz parte hartu dezaketenetan. Eta Arautegiak era honetan islatzen duenez, genero ikuspegitik Donostiako kirol esparruan ekarpenak egin ditzakeen pertsona gonbidatu batek ere parte hartu lezake.

⁷ Ibid 4.



3.1.2. Udal instalazioak

Donostiak kirol azpiegitura zabala du eta ingurune naturalek ere aukera ugari eskaintzen dituzte jarduera fisiko eta kirol jardueren praktitarako.

2007-2013 II Kirol Instalazioen Planaren arabera, hirian 258 kirol instalazio daude eta orotara 734 kirol gune; horietatik 257 tamaina txikiko guneak⁸ dira. Azken hauek kontuan izan gabe, Donostiako kirol instalazioen eroldan 478 kirol gune daude, ondorengo sailkapena eginez:

6 Taula. Donostiako kirol guneak

KIROL GUNEA	KOPURUA
Erabilera anitzeko aretoak eta areto espezializatuak	151
Pilotaleku estali gabeak	59
Kirol anitzeko pista estali gabeak	56
Tenis pistak	39
Zelai handiak	31
Pilotaleku estaliak	30
Kirol anitzeko pista estaliak	23
Padel pistak	22
Igerileku estali gabeak	11
Igerileku estaliak (igerileku ontziak)	8
Beste zenbait	48
GUZTIRA	478

ITURRIA: 2007-2013 II Kirol Instalazioen Plana

Kirol gune hauen %35,56 Udalaren jabetzakoak da⁹.

Aipatutako dokumentuan instalazioen sailkapena egiten da oinarrizko sarea eta sare osagarria berezita. Oinarrizko sarearen baitan hiru gune edo espazio mota bereizten dira: kirol espazio konbentzional arautuak, arautu gabe dauden kirol espazio konbentzionalak eta jarduera eremu izena ematen zaienak. Era berean, Planean oinarrizko sarean eta sare osagarrian dauden kirol espazio edo guneen inguruko kirol eskaeraren azterketa aurkezten da, kirol praktika motaren arabera (eskola kirola, errendimenduko kirola –bakarkako eta taldekako modalitateak berezita- eta parte hartzeko kirola).

⁸ 800m2 baino gutxiagoko erabilera anitzeko aretoak, luzeraz 10m baino gutxiago duten frontoiak, kirol zelaiguneak, irakaskuntzarako ontziak edo 100m2 baino gutxiagoko igerilekuak eta 100m2 baino gutxiagoko erabilera anitzeko aretoak. Iturria: 2007-2013 II Kirol Instalazioen Plana. Erabilgarri www.donostia.org orrian (Kontsulta 2011ko abenduan).

⁹ Ibid 8.

Ikerlan honi dagokionez, Instalazio Planak errendimenduko kirolean egiten duen azterketak garrantzia handia du, batez ere, talde kopuruari dagokionez, eta beren jardueretarako astean zehar behar duten ordu kopurua eta azalerari dagokionez. Azterketa honetan futbola, belar hockey-a, errugbia, boleibola, areto-futbola eta areto-hockey-eko taldeak aipatzen dira.

Azterketa hau oso egokia da kirol espazio edo guneen erabileraren inguruan kirolarien segmentu ezberdinek dituzten beharrak ezagutzeko. Hala ere, garrantzitsua da KUPek erabilera errealaren informazioa edukitzea, klubeko antolaketa eta baliabideen barne banaketa egiterakoan ordutegi eta instalazio txarrenak sistematikoki nesken taldeei ez egozteko. Hori lor daiteke instalazioak emateko baldintzetan¹⁰ berdintasun irizpidea sartuta edota hitzarmenak sinatzean edo kudeaketa ematerako unean klausula gisa ezarrita. Hockey-eko kasuan, adibidez, talde dinamiketan parte hartu duten kirolari federatuek azpimarratu dute Donostian egun dagoen zelai bakarrak baldintzak hobeto egon behako lukeela.

- ✓ *“Ordutegiak Atletico San Sebastian klubak kudeatzen ditu. Udalaren eta federazioaren arteko hitzarmena dago eta ordutegien kudeaketa federazioaren esku dago. Baina Atletico, bere kluba izanik, lehentasuna du ordutegiak kudeatzeko. Ez dugu astelehen, asteazken eta ostiraletan Gipuzkoako klub guztiekin banatu behar zelaiaren erabilpena. Denok 18:30-19:00tatik aurrera entrenatzen dugu”.*
- ✓ *“Zelai bakarra dugu Gipuzkoako jokalaririk guztientzat. Gutxi iruditzen zait eta gainera pribatua izatea... jokatzen dugun mailan jokatuta, iruditzen zait gutxienez zelai guztian entrenatu beharko genukeela eta ez zelai erdian”.*
- ✓ *“Partiduak beti asteburuetan izaten dira. Nesken eta mutilen partidak bat egiten badute, neskek 10:30etan jokatzen dugu eta mutilak 12:30etan; eta partidua baino bi ordu lehenago egon behar dugu, 8:30ak aldera, nahiko goiz. Guri 12:30etan jokatzea gustatuko litzaziguke, ez bakarrik lo egiteko denbora edukitzeko, baizik eta era horretan jende gehiago etorriko litzatekeelako gu ikustera. Baina lehentasuna mutilak dutenez, beraien taldea denez, ezin da ezer egin”.*

¹⁰ Kiroletako Udal Patronatuaren Zerbitzu eta kirol Instalazioen Araudiaren IV Tituluko, 35. Artikulua. Erabilgarri: www.donostia.org (Kontsulta: 2011ko abenduan).

✓ *“Lehengo urtean play-off-ak jokatzen ari ginenean eraikuntza-lanetan hasi ziren. Laudiora joan behar izaten genuen entrenatzera, hiru egun astean, eta baita partiduak jokatzen ere, hemendik ordu betera egonda. Gaueko hamabiak aldera iristen ginen etxera eta unibertsitatera edo eskolara joan behar izaten genuen; batzuentzat azterketa garaia zen eta kaosa izan zen”.*

✓ *“Eraikuntza-lanak orduan egin ziren Athleticok hala nahi izan zuelako. Kexak aurkeztu ziren baina ezer. Klub pribatua denez, nahi duena egin dezake. Hori bai, diru publikoarekin finantzaturako lanak ziren”.*

Hockey-an edo errugbian jokatzeke zelai berrien eraikuntza aurreikusten du Planak; bien bitartean ordea, Udalak klubei kirol eremuak berdintasun irizpideak aintzat hartuta banatzea eskatu beharko lioke; baita Atletico San Sebastianen gisako zelai pribatuak ere, bere eraikuntza lanak Udalak finantzatu baitzituen, beste hockey talde batzuk erabiltzeko baldintzarekin¹¹.

Bakarkako modalitateei dagokionez, gimnasia erritmikoa egiteko leku bat egokitzea –berri bat eraikitzea agian- aurreikusten da Planean. Gaur egun Altzako kiroldegian egiten da aktibitate hau, batez ere, eta horretarako erabiltzen duten eremua ez dago behar bezala egokitua. Gimnasia erritmikoa, erabat feminizatua dagoen modalitatea izaki, minorizatua izan arren, aktibitate hau egiteko leku egoki bat prestatzea zein neurritan den beharrezkoa hausnartu beharko litzateke.

KUPen instalazioei dagokionez, nabarmendu behar den azken puntua, aldagelen eta haietan eskaintzen diren zerbitzuetako batzuen ingurukoa da, haurren aldagailuak kasu. Irizten diote haiek neska eta mutilentzat komunak diren lekuetan egon beharko luketela edo, gainerakoan, gizonen eta emakumeen aldageletan, eta ez soilik emakumezkoenetan. Dinamiketan parte hartu duten pertsonen familia aldagelak izatea garrantzitsua dela uste dute, halaber.

Bestalde, Donostiako Instalakuntzen II Planak jasotako aktibitate eremuei helduta, Donostian badira eremu natural eta urbanoak herritarrek modu naturalean kirol praktikarako erabiltzen

¹¹Ibid 8.



dituztenak. Uste da, ordea, horiek ez daudela zerbitzuekin eta elementu osagarriekin behar bezala hornituta. Planaren helburua, eskaintzen dituzten aukeren neurrian, aktibitate programatuak egin ahal izateko eremu hauek zerbitzuz hornitzea da.

Adibide gisa, planak honako eremuak jaso ditu:

7.Taula. Donostiako jarduera eremuak

EREMU URBANO EDO NATURALA	MODALITATEA EDO KIROL PRAKTIKA
Hiriko hondartzak	Igeriketa, surfa, boleibola, arrauna, bela, futbola
Urumeako zubien eta Kontxako pasealekuaren arteko zirkuitua	Footing-a
Uliako bideak	xendazaletasuna, bizikleta, media
Igeldoko bideak	xendazaletasuna, bizikleta, media

ITURRIA: 2007-2013 Donostiako Kirol instalazioen II Plana
2007-2013

Kirol erabilerako eremu urbano eta naturalak egokitzeko orduan garrantzitsua da irisgarritasun bitarteko eta argiztapen egokiak ezartzea, modu horretan erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko. Talde dinamiketan parte hartu duten emakumeek aktibitate eremuetan zenbait behar daudela nabarmendu dute:

- ✓ *“Bidegorria ongi dago, baina zenbait tokitan amaitu egiten da eta espaloiak eta prestatuta ez dauden zebra bideak daude... batez ere, Kontxako inguruan. Badira tarteak oso ondo daudenak, baina beste batzuk ez; espaloietan eta zebra-bideetan trabatu egiten zara eta are gehiago patinekin bazoaz”.*
- ✓ *“Zenbait tokitatik joatea ez zait gustatzen, ez dagoelako eta argirik. Guk Intxaurren Zaharrea, Zubiaurre Ibilbidean bizi gara, trenbidearen ondoan. Bertan ez da argi handirik izaten eta etxe gutxi dago. Nire laguna bertara joaten da korri egitera, baina beldur izaten du”.*
- ✓ *“Nik Ategorrietan egiten dut korri eta puntu beltzak daude; Ulian, ez dago espaloirik, ez dago argirik toki batetik Aurrera... Mirakruz Gainean ere zenbait tokitan argia falta da”.*

3.1.3. Kirol Politika diru-laguntza bitartez

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak bere misioa tokiko Kirol Sistemaren funtzionamendu eraginkorrerako lider izatea dela dio¹². Horrela kalitatezko zerbitzu publikoaren bidez, donostiar orok kirola egiteko aukera duela ziurtatuko da. Helburua hau lau ardatzetan oinarritzen da: kirol praktikaren oinarri soziala handitzea, Donostia kirol eremu bilakatzea, Donostiako kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea handitzea eta kirol eskaintza publikoaren autofinantzaketa maila handitzea¹³.

Kiroletako Udal Patronatuaren autofinantzaketa maila %60,94koa da. Helburua 2013rako %62raino handitzea da, Donostiako 2007-2013 Kirolaren Plan Estrategikoarekin bat¹⁴.

Testu honetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna aipatzen da KUPek jarraitu beharreko zeharkako irizpide gisa; bai eta erakundearen kirol politikek oinarri duten baloreetako bat bezala.

Kiroletako Udal Patronatuaren 2011ko aurrekontua 13.303.744,45 €-koa izan zen. Ondoren zehazten da bere banaketa Kapituloka:

8 Taula. KUPen 2011ko gastu aurrekontua Kapituluka

KAPITULOA	KONTZEPTUA	GASTUA
I	Langileak	3.814.806,19€
II	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	7.338.938,26€
III	Finantza gastuak	18.000,00€
IV	Transferentzia arruntak	807.000,00€
VI	Inbertsio errealak	1.325.000,00€
VIII	Finantza-aktiboak	0,0€
IX	Finantza-pasiboak	0,0€
GUZTIRA		13.303.744,45€

ITURRIA: Donostiako Udaleko 2011ko Udal Aurrekontuetako 3. Liburukia


¹² Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontua. Donostiako Udaleko 2011ko Udal Aurrekontuetako 3. Liburukia. Eskuragai www.donostia.org orrian (kontsulta 2011ko abenduan)

¹³ Ibid 12.

¹⁴ Donostiako 2007-2013 Kirolaren Plan Estrategikoa. Eskuragai www.donostia.org orrian (Kontsulta 2011ko abenduan)

KUPeko aurrekontuaren %6 bideratzen da 4. Kapitulara-Transferentzia arruntetara, kirol arloan laguntzak eskaintzeko. 2011ean 807.000 euro bideratu ziren Kapitulua honetara.

4 Grafikoa. KUPen 2011ko aurrekontuaren banaketa Kapituluka



ITURRIA: Norberak egina

Dirulaguntzen bidez eman den diruarekin entitate txikien bitartez kirola sustatzea da helburua¹⁵. Laguntzak arautzen dituen arautegia urtero berritzen da Donostiako 2007-2013 Kirolaren Plan Estrategikoan zehaztutako helburuetara egokitzeko. Planak hiru diru-laguntza lerro ditu: Kluben bidez kirol aktibitatea bultzatu eta garatzea; eskola kirola, eta aparteko aktibitateak. Era berean, dirulaguntzak emateko zehazten diren irizpideek emakumeak eta bertako kirolak barneratzea bilatzen dituzte, garrantzia bereziko lerro estrategiko gisa¹⁶.

¹⁵ Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontua. Donostiako Udaleko 2011ko Udal Aurrekontuaren 3 liburukia. Eskuragai www.donostia.org orrian (kontsulta 2011ko abenduan).

¹⁶ Ibid 15.

Horrenbestez, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren 2011ko Aurrekontuaren konturako diru laguntzak¹⁷ ematea arautzeko oinarriak aipatu hiru lerroen edo eranskinen -haitetan jasotzen dira dirulaguntzen oinarria eta dirulaguntzen lerroetako bakoitzean aplikatzen diren balorazio irizpideak- bidez garatzen dira. Ondoren zehaztu dira eranskin bakoitzari dagozkion diru-laguntza lerro zehatzak:

9 Taula. KUPen Aurrekontu Oinarrien eranskinak eta 2011ean aurrekontuetan sartutako gastuak


ERANSKINA	KONTZEPTUA	AURRIKUSITAKO GASTUA
I	Eskola Kirola kudeatzeko egituren garapena	230.000,00€
II	Kirol taldeen eta klubuen egitura-garapena	400.000,00 €
III	Kirol jarduera berezien antolaketa	160.000,00€
GUZTIRA		790.000,00 €

ITURRIA: Norberak egina KUPen 2011ko Diru-laguntza Deialdian oinarrituta

Dirulaguntzetara bideratutako diruaren %29 I Eranskinera bideratzen da –eskola kirola kudeatzeko egituren garapenera-; %51 II Eranskinera –kirol taldeen eta klubuen egitura-garapenera-; eta %20 III Eranskinera –kirol jarduera berezien antolaketara-.

¹⁷ Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren 2011ko Aurrekontuaren konturako diru laguntzak ematea arautzeko oinarriak. Erabilgarri: www.donostia.org (Kontsulta: 2011ko abenduan).

5 Grafikoa. 2011ean diru-laguntzetarako aurreikusitako zenbatekoaren banaketa diru-laguntza ildoaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

2010ean KUPek I Eranskinera -eskola kirola kudeatzeko egituren garapenera bideratutako diru-laguntza lerroa- 230.000,08 euro bideratu zituen, haietatik 213.805,58 kudeaketara eta eskola kirolera bideratu ziren -42 ikastetxek jaso zuten diru-laguntza kontzeptu honetan- eta 16.194,5 eskola kiroleko teknikoek formaziora -14 ikastetxek jaso zuten diru-laguntza kontzeptu honetan¹⁸, taulan jaso den moduan:

¹⁸ 2010ean KUPek eman zituen diru-laguntzak. Erabilgarri www.donostia.org orrian (Kontsulta: 2011ko abenduan)

10 Taula. 2010ean eskola kiroleko tekniko formaziora bideratutako diru-laguntzak

IKASTETXEA	DIRULAGUNTZA
Antigua - Luberrri B.G.E.	980,00€
Amara Berri Herri Ikastetxea	2.616,00€
Axular Lizeoa	2.030,00€
Colegio Católico Santa María - Marianistas-	980,00€
Herri Ametsa ikastola	420,00€
Ibai Ikastola	1.120,00€
Intxaurren Ikastola	1.050,00€
María Auxiliadora Ikastetxea	770,00€
Mary Ward Ikastetxea	1.043,00€
Ntra. Sra. de Aranzazu	910,00€
San Ignacio de Loyola	1.190,00€
Santo Tomas Lizeoa	1.475,50€
Zuhaizti Eskola Publikoa	770,00€
Zurriola Ikastola	840,00€
GUZTIRA	16.194,5 €

ITURRIA: 2010ean KUPek emandako diru-laguntzak. Eskuragarri: www.donostia.org orrian

II Eranskinari dagokionean –kluben eta kirol elkarten egiturak garatzera bideratutako diru-laguntza lerroa-, 2010ean KUPek 399.999,74 euro banatu zituen hiriko 75 klubentzako artean (Donostian erroldatutakoentzako %35,7).

Klubei emandako diru-laguntzen inguruan eskura dauden datuek ez dute ahalbidetzen kirol modalitateen arabera diru banaketa sakon aztertzea, ez eta diru-laguntza hauek duten genero inpaktuan sakontzea. Ondoren, kirol modalitate bakarrekotako klubei²⁰ bideratutako diru-laguntzen taula ikus daiteke; emandako dirulaguntzak kirol modalitatearen arabera elkartu dira:

¹⁹ Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, 2008-2009 denboraldian Donostian 210 klub zeuden erroldatuta. Eskuragarri www.kirolbegi.net orrian (kontsulta 2011ko abenduan).

²⁰ Edo gutxienez kirol modalitate bakarratik diru-laguntza jaso dutenak. Azterketa honetan sartu da, halaber kirol egokitua, eskatzen duen tratamendu bereziagatik.

11 Taula. 2010ean II Eranskinera bideratutako diru-laguntzak kirol modalitatearen arabera

MODALITATEA	ZENBATEKOA
Xakea	4.477,22€
Atletismoa	826,40€
Automobilismoa	1.444,80€
Saskibaloia	20.101,89€
Eskubaloia	3.341,03€
Beisbola y Sofbola	2.029,62€
Kirol egokitua	6.098,33€
Futbola/8 Futbola	24.069,63€
Gimnasia erritmikoa	1.598,54€
Hockey-a	8.639,81€
Judoa	7.856,56€
Mendizaletasuna	18.876,77€
Igeriketa	552,92€
Pilota	8.264,08€
Piraguismoa	2.389,43€
Arraunketa	2.424,14€
Arku-tiroa	1.194,73€
Tiro Olinpikoa	170,74€
Surfa	7.075,62€
Waterpoloia	3.342,03€

ITURRIA: Norberak egina KUPek 2010ean emandako diru-laguntza datuak oinarri hartuta.
Eskuragarri www.donostia.org orrian

Taula honetan 2010ean diru-laguntza jaso zuten 75 klubetako 47 sartu dira eta II eranskinaren bidez kirol klubei banatutako dirulaguntzen %31,2 jaso zuten. Diru-laguntza gehien jaso zuten kirol modalitateak futbola, saskibaloia eta mendizaletasuna dira.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, hala ere, gainerako 28 klubentzako badirela futbola, saskibaloia edota mendia eskaintzen dutenak eta klub motaren eta barne hartzen dituen talde eta kirolarien artean aniztasun handia dagoela. II Eranskinetako diruaren gainerako %68,8 jasotzen duten klubentzako dago Agrupación Deportiva Real Sociedad (Estatuko goreneko mailan lehiatzen duen nesken hockey taldea du); saskibaloian, futbolean eta pilotan lizentziak dituen Club Internacional Intxaurren beste batzuk; eta Atlético Bera Bera R.T., Club Atlético

San Sebastian edo C.D Forkuna K.E. bezalako beste batzuk. Azken hauek, goi-mailako kirolariak izateaz gainera, kirol instalakuntzak kudeatzen dituzte.

II Eranskinaren bidez klubei emandako diru-laguntzen analisiaren lehen ondorioa aurrekontuaren genero inpaktua aztertzeko zailtasuna da, bai eta, ondoren lizentzia kopuruarekin alderatu ahal izateko, modalitate bakoitzari emandako dirulaguntzak ezagutzea ere. Era berean, ezin da jakin euren egituran berdintasuna sustatze aldera jarduera zehatzen bat antolatzeko diru-laguntza eskatu duten klub kopurua.

III Eranskinari dagokionean –kirol jarduera bereziak antolatzeko diru-laguntzen lerroa-, 2010ean KUPek 120.861,67 euro bideratu zituen 58 entitatek 95 jarduera berezi²¹ antolatzeko.

Patronatuak diruz lagundutako 95 ekimenez 30 kirol modalitate hartzen dituzte, kirol egokitu eta diziplina anitzeko ekimenez gainera.

²¹ 2010ean KUPek emandako diru-laguntzak. Erabilgarri www.donostia.org (Kontsulta: 2011ko abenduan)


12 Taula. 2010ean jarduera berezietara bideratutako diru-laguntzak kirol modalitatea eta zenbatekoaren arabera

MODALITATEA	ZENBATEKOA (€)	EHUNEKOA
Aerobic-a	227,201€	0,19%
Xakea	7.909,71€	6,54%
Atletismoa	23.539,03€	19,48%
Automobilismoa	8.785,35€	7,27%
Saskibaloia	2.443,07€	2,02%
Bodyboard-a	1.973,52€	1,63%
Txirrindularitza	3.511,60€	2,91%
Kirol egokitua	3.991,07€	3,30%
Eskalada	99,40€	0,08%
Esgrima	170,40€	0,14%
Fútbola	10.645,16€	8,81%
Areto-futbola	284,00€	0,23%
Hockey-a	763,94€	0,63%
Judoa	1.082,25€	0,90%
Karatea	71,00€	0,06%
Mendizaletasuna	1.268,06€	1,05%
Diziplina anitzekoa	4.280,29€	3,54%
Igeriketa	6.947,46€	5,75%
Padela	1.093,40€	0,90%
Euskal pilota	19.840,76€	16,42%
Piraguismoa	379,14€	0,31%
Arraunketa	1.184,92€	0,98%
Errugbia	198,80€	0,16%
Beisbola eta Sofbola	3.692,39€	3,06%
Surfa	2.673,80€	2,21%
Tenisa	4.255,42€	3,52%
Tiroa	3.246,76€	2,69%
Triatloia	287,55€	0,24%
Bela	5.111,68€	4,23%
Boleibola	904,54€	0,75%
GUZTIRA	120.861,671€	100,00%

ITURRIA: Norberak egin a KUPek 2010ean emandako dirulaguntza datuak oinarri hartuta.
Eskuragarri www.donostia.org orrian

Diru-laguntza gehien jasotzen duten kirol modalitateak atletismoa (%19,5), euskal pilota (%16,4) eta futbola (%8,8) dira.

6 Grafikoa. Aurrekontuan ekintzetarako aurreikusitako zenbatekoa modalitateen²² arabera



ITURRIA: Norberak egina KUPek 2010ean emandako dirulaguntza datuak oinarri hartuta.
 Eskuragarri www.donostia.org orrian

Aurretik aipatu den moduan, ikerketa hau Donostiako Udalak KUPen genero ikuspuntuko zeharkako neurriak barneratu ditzan saiatu da. Zehazki, diru-laguntza oinarriak Udal Gobernuko Batzarrak 2010eko azaroan onartutako zeharkako ekintzen baldintzetara egokitzen ahalegindu da. KUPen diru-laguntzen oinarriak²³ aztertu dira, Udal Gobernuaren Batzarrak ezarritako aginduetara egokitzeko eta, ere berean, genero ikuspuntua aintzat hartzen dutela bermatzeko.

Ondoren, KUPen diru-laguntza oinarrien hiru Eranskinen azterketa azalduko da (azterketa osoa I Eranskinean jasoa dago):

²² Ez dira kontuan hartu diru-laguntzen ehunekoa %1 baino baxuagoa duten modalitateak: aerobic-a, eskalada, esgrima, areto-futbola, karatea, piraguismoa, errugbia eta triatloia

²³ Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren 2011ko Aurrekontuaren konturako diru laguntzak ematea arautzeko oinarriak. Erabilgarri: www.donostia.org (Kontsulta: 2011ko abenduan).

I Eranskina. Eskola kirola kudeatzeko eta bermatzeko egiturak garatzea

Erakunde **onuradunen betebeharrak-4 ataleko “d” azpiatalean** jaso da beharrezkoa dela bermatzea langileen gaitasun egokia, bai kirolaren eta teknikaren aldetik, bai eskola kirolari loturiko beste hezkuntza alderdi batzuetan. Eskola kiroleko saioak egiteaz arduratzen diren pertsona teknikoak neska eta mutilen berdintasun gaietan prestatu daitezzen, komenigarria litzateke Patronatuak aipatzen dituen hezkuntza alderdiak zehaztea; bai eta hezkidetzaren garrantzia sartzea, besteak beste, pertsona hauek neska mutilek aktibitatearekin duten gozamen eta atxikidura mailan, kirolaren jarraipenean eta sexu estereotipo eta rolen erreprodukzioan duten eraginagatik.

4 ataleko “j” azpiatalean, jaso da ikastetxeek erraztu behar dutela ikasleak kirol klubetara sartzea eskolaratze aldia amaitutakoan, kirol praktikan jarrai dezatela bermatzeko, bai errendimendu helburuekin, bai parte-hartze helburuekin. Oso garrantzitsua da Kirolerako Udal Patronatuak kirol klub guztiei eskatzea eskola kirola programan egin dezatela, neska eta mutilek kirola egiten jarrai dezaten bermatzeko. Kasu batzuetan, zenbait klubek ez die bere modalitatea emakumeei eskaintzen, eskari gabezia dagoela edota nesken eskariari erantzuteko zailtasun ekonomikoak –eta bestelako baliabideak- dituztela argudiatuta. Ahalmen falta hau justifikatua dagoen kasuetan, klubak berak bermatu beharko litzuke kalitatezko alternatibak aipatutako modalitatean jarraitu nahi duten nesKentzat. Hala ere, komenigarria da KUPek alderdi hau kontuan hartzea diru-laguntzak emateko garaian.

5 atalean-Eskaerak eta aurkezteko epea, “e” azpiatalean aurreko ikasturteko memoria aurkeztu behar dela jaso da. Bertan diru-laguntza emateko aztertu beharreko atal guztiek azaldu behar dute:

- Lehiaketa jardueretan parte-hartzea.
- Kirol klubekin sinatutako hitzarmenak
- Teknikoen tituluak, izenak eta abizenak
- Sustapen jardueretan parte-hartzea
- Norbere instalazioak uztea

Kirolean berdintasuna garatzearen ikuspegi teorikotik, bai eta “Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko Jarraibideak”²⁴ betetzeko, Kirolerako Udal Patronatuak erakunde onuradunei lehiaketa eta sustapen jardueretan parte hartzen duten pertsonen adina eta sexua zehazteko eskatu beharko lieke; baita aktibitate bakoitzera bideratzen den zenbatekoa –kontzeptuka bereizita- ere. Errekurtso ekonomikoen banaketaz gain, KUPek neska eta mutilen egokitutako monitoreen prestakuntza ezagutu beharko luke, bai eta ekintzetarako ordutegi eta instalazioen banaketa, dauden baliabideen banaketan genero desberdintasuna ekiditeko.

Bestalde, egitura berezi eta egonkorak sortzeko diru-laguntzen irizpideei dagokien **6.1 atalean**, ikastetxeetan ekintza positibo bat jaso da. Horren arabera, 1,10ekin biderkatutako da ikastetxeko organo gorenak onartutako zentroaren Kirol Proiektua duten ikastetxeen emaitza. Neskek eskola kirolean parte-hartze baxuagoa dutela eta, batez ere, haien kirol uztea kontuan hartuta - Kirolerako Udal Patronatuko langile teknikoei nahiz ikastetxeetan kirol eskaintza koordinatzen duten arduradunei ardura eragiten die gaiak-, egokia litzateke ikastetxeko kirol proiektua izateari balio handiagoa ematea, bertan eskainitako programan nesken parte-hartzea sustatzeko ekintzak zehazten dituen atal bat azal dadin exijituta.

II Eranskina. Kluben eta kirol elkarten egiturak garatzea

3 atalean-Erakunde onuradunak, exijitutako lizentzia gutxieneko kopuruari (25 kolektiboan eta 15 banakakoan) dagokion “**e**” **azpiatalean**, baldintza hau ez dela eskatuko zenbait kasutan adierazi da, besteak beste, emakumezkoen kirolean diharduten klubetan kasuan. Egoki ikusten da neurri positibo hau; izan ere, emakumezkoen taldeek maiz arazo gehiago dituzte taldeak osatzeko lizentzia kopuru baxuagoa dutelako.

Era berean, **5 atalean**, federazio lizentzia bakoitzari dagozkion **puntuazioen eta baremoen 1 azpiatalean**, emakumezkoen lizentziak 1,5ekin biderkatuko direla zehatu da, mendia, golfa, ehiza eta arrantza kasuetan salbu.

²⁴ Donostiako Berdintasun Bulegoak emandako fitxa, diruz lagundutako proiektu eta jardueretan naiz diru-laguntzen justifikazioan genero perspektiba nola txertatzen den baloratzeke.

Azkenik, **5 atalean**, klubaren kirol atal bakoitzaren **balorazio eta puntuazio adierazleei dagokion 4 azpiatalean**, bigarrenetik aurrera 5 puntu emango zaizkiola zehaztu da, eta 10 atalean emakume eta gizon kirolariak badaude. Ekintza positibotzat hartu da hau ere, kontuan hartuta I eranskinean egiten den proposamena. Bertan garrantzitsutzat jo da klubek kalitatezko eskaintza egitea gizonentzat zein emakumeentzat.

13,14 eta 15 Taulak. II Eranskineko diru-laguntza oinarrietan aztertutako atalen laburpena.

Atala	3. Erakunde onuradunak
Azpiatala	e) Klubaren gutxieneko lizentziak
Edukia	“Talde kirolei dagokionez, gutxienez, federaturiko 25 lizentzia izatea, eta banakako kirolei dagokionez, berriz, gutxienez, federaturiko 15 lizentzia izatea kirol atalen”. Ez aplikatzeko aukera dago: Klubak emakumezkoen kirolean jarduten badu.
Oharrak	Emakumezko klubentzat ekintza positiboa egiten da.
Puntuazioa	Ez da zehazten

Atala	5. Diru laguntzen zenbatekoa zehazteko baremoa
Azpiatala	1. Kirol lizentzia bakoitzeko (goi mailako kirol lizentziak salbu)
Edukia	“Emakumezkoen lizentzia federatuen kasuan 1,5ekin biderkatuko dira (mendi, golf, ehiza eta arrantza lizentziak salbu)”.
Oharrak	Ekintza positiboa da, emakumezkoen lizentziak gizonezkoen lizentziak baino koefiziente handiago batekin biderkatzen baitira
Puntuazioa	Zenbatekoa 1,5 koefizientearekin biderkatuko da.

Atala	5. Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko baremoa
Azpiatala	4. Klubeko kirol bakoitzeko, bigarrenetik aurrera.
Edukia	“...5 puntu atal bakoitzeko, eta 10 puntu atalean emakumezko eta gizonezko kirolariek parte hartzen badute...”
Oharrak	Ekintza positiboa egiten da, puntu gehiago ematen baitzaizkie gizonen eta emakumeen taldeei.
Puntuazioa	5 puntu lizentzia bakoitzeko eta 10 klubak emakumezko eta gizonezkoen lizentziak baditu

ITURRIA: Norberak egina

I Eranskinean bezala, Donostiako Udalak ezarritako zeharkako neurriak²⁵ abian jartze aldera, egokia litzateke Kiroletako Udal Patronatuak erakunde onuradunei genero inpaktuaren araberako gastuen zerrenda zehatza eskatzea. Horrela emakume eta gizon kirolariekin egin den gastua ezagutu eta baliabideen banaketa desberdina²⁶ eragotziko litzateke.

Era berean, Kirolerako Udal Patronatuak entitateek maila guztietan (kirolariak, teknikoak, arbitroak, zuzendaritzako kideak) emakumeen parte-hartzea sustatzeko garatzen dituzten proiektu eta jarduerak ezagutu beharko lituzke eta, behar izanez gero, baloratu.

III Eranskina. Kirol jarduera bereziak antolatzeke diru-laguntzak

III Eranskineko **4 atalean-eskabideak eta aurkezteko epeak, “f” azpiatalean**, jaso da jarduerako gastu eta diru sarreren aurrekontua aurkeztu beharko dela. Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko Jarraibideak²⁷, kontuan hartuta, Donostiako Kirol Patronatuak ezagutu beharko lituzke laguntzaren onuradunak diren gizon eta emakumeen kopurua eta bakoitzaren parte-hartzea zein modutakoa izango den.

Jarduera bereziaren antolatzailea den erakundeak Udalari azaldu beharko dio kirolari –edo bere kasuan, ikusle gisa-, antolatzaile edo bolondres gisa parte hartuko duten emakume kopurua.

Era berean, atal bereko **“j” azpiatalean**, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Donostiako Udalaren Araudiko 25. artikuluan zehaztutako eran zainduko dela euskararen erabilera jaso da. Komenigarria litzateke Kiroletako Udal Patronatuak, arlo hau zaintzeaz gainera, eta aipatu berdintasunaren aldeko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideak betetze aldera, lengoaiaren eta irudien erabilera ez sexista baldintza gisa ezartzea. Arau hau diruz lagundutako kirol ekintzaren gaineko publizitate eta dokumentazio guztietan bermatu beharko litzateke.

²⁵ Ibid 24.

²⁶ Esaterako, gizonen taldeak –maila altuago batean egon gabe edo bidaia luzeagoak egin gabe, ez eta justifikatu gabeko beste arrazoi batengatik- autobusean egitea bidaiak, nesken taldeak auto partikularrean egiten dituen bitartean. Informazioa gehiago: EKFB (2011): “*Guía para la incorporación de la perspectiva de género en las federaciones deportivas vascas*”. Eskuragarri: http://euskalkirola.com/wp-content/pdf/Guia_igualdad_federaciones.pdf

²⁷ Ibid 26.



Diru-laguntzen oinarrietan kasu honetan ere emakumeen aldeko ekintza positiboa egiten dela nabarmentzekoa da; izan ere, puntu gehiago ematen baitzaizkie kirol jarduera berezien kirol intereseko irizpideetan (**b.2 atala, dagokion federazioak probari onartzen dion maila**). Kasu honetan, 10 puntu ematen zaizkio Espainiako Txapelketa absolutoari -20, emakumezkoena bada- eta 5 puntu Espainiako Txapelketa absolutoko Sektore fasea bada -10, emakumezkoena bada-.

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren diru-laguntzen oinarrien azterketak agerian utzi du kirol arloan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboak kontuan hartzen direla.

Neurri hauez gain, komenigarria litzateke, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 otsailaren 18ko Legearekin eta *Donostiako Udalak diru-laguntzen genero ikuspegia txertatzeko ezarritako zeharreko ekintzekin* bat, Kiroletakoa Udal Patronatuak laguntzak eskatzen dituzten erakundeek berdintasun printzipioa errespetatzen dutela bermatzea. Erakunde hauek euren ekintzen kudeaketan ez dutela bereizkeriarik egiten bermatzeko eta baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak modu berdinean banatzen dituztela ziurtatzeko, beharrezkoa litzateke neurriak hartzea. Era berean, lengoaiaren eta irudien erabilera sexistak baztertu beharko liratezke, emakumeen irudiak sartuz, besteak beste, diruz lagundutako ekintzen karteletan eta Kiroletarako Udal Patronatuko web orriko edo diruz lagundutako entitateen albisteetan.

3.1.5. Lengoaia, irudiak eta sexismoa Donostia Kirolerako Udal Patronatuan

Kirolerako Udal Patronatuak banatzen dituen dokumentuek lengoaiaren eta irudien erabilera ez sexista egiteko saiakera egiten dela agerian uzten dute. KUPen 2011ko lehaineko ekintzen liburuxkan nahiz Udalaren web orrian Donostiako kirolaren atalean jarritako testuek lengoaia zaintzeko ardurak erakutsi dute. Hala ere, lengoaiaren erabilera ez sexista ez erabiltzeko baliatzen diren aukerak aztertuta, erredakzioan irizpide bateratuak erabiltzeko dokumentazioaren gain-begirada egitea aholkatzen da.

Jarraian KUPen dokumentazioan topatu diren adibideak jaso dira taula batean:

16 Taula. KUPen dokumentazioan erabilitako lengoaia

DOKUMENTUA/TESTUA	ESTILOA	ADIBIDEAK
2010 Tasen liburuxka	Maskulino generikoa	Abonados, no-abonados, abono adulto, federado adultos, federado menores, 10 usos instalación adultos entrada instalación adulto, etc.
Kirolerako Udal Patronatuaren estatutuak	Maskulino generikoaren eta barren konbinazioa	Los miembros del Consejo, los elegidos, votación de entre los propuestos, Presidente/a: Alcalde/Alcaldesa, concejal/a delegado/a de Deportes, un/a concejal/a de cada grupo municipal, un/a representante, Los/as vocales, etc.
Kirolerako Aholku Batzordearen araudia	Maskulino generikoaren eta barren konbinazioa	Un representante, un/a representante, el alcalde o alcaldesa, el/la concejal, ciudadanos/as, el/la secretario/a
Kirol zerbitzuen eta jardueren araudia	Forma generikoa barrekin eta maskulino generikoarekin konbinazioa	Los espectadores/as, los trabajadores/as, el responsable de la gestión, los entrenadores, profesores, jugadores, usuarios, los ciudadanos, el interesado/a
KUPeko doako ekintzen liburuxka	Maskulino generikoaren eta barren konbinazioa	Los participantes, Alumno/a, alumno y alumna, monitor/a, abonados y abonadas, los/as etc.
Kirolerako Udal Patronatua web orrian	Maskulino generikoaren, generiko abstraktuen, barren eta forma bikoitzen konbinazioa	Los ciudadanos, carnet de abonado, personas no abonadas, los no abonados, ofertados, los alumnos, monitores, usuarios y usuarias, etc.
2011ko Diru-laguntza Oinarriak	Maskulino generikoa, barrak eta forma bikoitzak	El organizador, beneficiarios, los monitores, un representante, el coordinador, los técnicos, asociación de padres, los mismos, los escolares, los deportistas, los minusválidos, El/la, coordinador/a, monitor/a, Monitores y monitoras, etc.

ITURRIA: Norberak egina

KUPek bere komunikazioan erabilitako irudiei dagokionez, nabarmentzekoa da bai bere liburuxketan nahiz beste dokumentuetan (adibidez, Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoan (2007-2013)) emakumeen zein gizonen irudiak erabili direla.

KUPek kirol jarduera bereziak antolatzeko diruz lagundu dituen entitateei dagokionez berriz, emakumeen presentzia nabarmen baxuagoa dela ikus daiteke.

1 irudia. 2009an egindako Barclays Fundazioaren II Txapelketaren kartela.



ITURRIA: www.donostia.org

2 irudia. 2010eko Donostiako Nazioarteko Triatloi Txapelketaren kartela.

ITURRIA: www.loiolatarra.org

3 irudia. 2010eko Padel ATE Torneoaren kartela.

con 1220 euros a repartir en premios más trofeos

XII TORNEO DE PADEL ATE ASESORES RTSS
del 6 al 11 de abril 2010

Mollek / Categorias:
- Gizonen eta Emakumeen 1. eta 2.
- Maskulino eta Emakumeen 1^{er} eta 2^{er}

APLICACION NORMATIVA DEL C.V.P.

EPAILE NAGUSIA / JUEZ ARBITRO: Juan Luis de la Caba

IZENA EMATEKO EPAIA - APIBILAK 1, 20,00ok orie*
PLAZO DE INSCRIPCIÓN: hasta el 1 de ABRIL a las 20,00 h.*
* (dependiente del lugar relativo de inscripción)

IZENA EMATEKO KUOTA / CUOTA DE INSCRIPCIÓN: 15 €*

IZEN-EMATEK / INSCRIPCIÓN: en el siguiente email:
juanluis@rtss.com

ORDUTEGIAK / HORARIOS: Entre semana se juegan a partir de las 18:00 h.
El fin de semana a partir de las 9:00 h.

CUADRO DE PREMIOS	
CATEGORÍA	PREMIOS
EMAKUMEA	100,00
EMAKUMEA	50,00
EMAKUMEA	25,00
EMAKUMEA	10,00

La bola oficial será HEAD

Con la inscripción se obtendrá una sudadera conmemorativa

real club de tenis de san sebastián
donostiako tenis elkarte erreala

ate

ITURRIA: www.rtss.com

Entitate antolatzaileak irudi anitzak, adin ezberdineko gizon eta emakumeenak, sar ditzaten zaindu behar da, estereotipo tradizionalak saihesteko. Horrez gain, komenigarria da hirian antolatzen diren kirol ekintzak hedatzean arlo hau zaintzea, emakumeen zein gizonen parte hartzea ikustarazten duten irudiak erabilia.

4 Irudia. Kiroletako Udal Patronatuak diru-laguntza bidez babesten dituen ekintzen aurkezpena web orrian²⁸



Fuente: www.donostia.org

²⁸ Kiroletako patronatuaren web orriaren agendatik hartutako irudia. Ekintza ezagutzera ematen da Cross Amstel Tres Playas lasterketaren 2011ko irudiarekin.

3.2. Partaidetza kirola

Kirolaren euskal Plana 2003-2007 dokumentuak partaidetzako kirola modu honetan definitzen du: *“Kirolariak egiten duen huraxe hainbat arlotan dituen premiak asetzeko: aisia, olgeta, estetika edo/eta osasuna, alde batera utzita jarduera kirol-esparru antolatuetan, lehiaketan, modu arautuan egiten den ala ez. Ondorioz, kirol jarduera honen atzean bizitza osasuntsuari loturik dago”*²⁹.

Partaidetza kirola egin nahi duten pertsonak modu ugarian egin dezakete Donostian. Aukera nagusiak aire librean oinez ibiltzea, bizikletan ibiltzea, korrika egitea, surfean aritzea, patinatzea, piraguismoa, eskalada... dira. Gainerakoa, Kiroletako Udal Patronatuaren kirol instalazioetan edo gimnasio pribatuan egin daiteke.

KUPen kasuan, Kirol Txartelaren bidez abonatu daitezke erabilpen libreko instalakuntzak (igerilekuak, gimnasioak, squash pistak, pilotalekuak, saunak...) erabiltzeko eta/edo eskaintzen diren ikastaroetan izena emateko.

3.2.1. Abonauk

Gaur egun Donostian 45.395 pertsonak dute Kiroletako Udal Patronatuaren Kirol Txartelaren abonua³⁰, hiriko emakumeen %20,85ek eta gizonen %28,38k³¹.

²⁹ Kirolaren euskal Plana (2003-2007). Erabilgarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-714/eu/contenidos/informacion/plan_deporte_2003_2007/eu_6112/adjuntos/deporte_vasco_eus.pdf (kontsulta: 2011ko abenduan).

³⁰ Kiroletarako Udal Patronatuak emandako datua (2011ko abuztuaren 1eko datua).

³¹ Premisa gisa hartu da abonu guztiak Donostiako udal erroldan izena emanda daudela. Hala ere, posible da abonu batzuk beste herrietakoak diren pertsonenak izatea.

17 Taula. Kirol Txartela duten Donostiako herritarren ehunekoa, adina eta sexuaren arabera.

ADINA	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA
0-10	%32,4	%34,59	%33,5
11-20	%42,0	%49,20	%45,7
21-30	%22,6	%32,23	%27,3
31-40	%29,6	%35,70	%32,7
41-50	%28,7	%34,67	%31,6
51-60	%15,4	%21,95	%18,5
61-70	%10,1	%13,22	%11,5
71-80	%4,8	%7,03	%5,7
80+	%0,9	%5,22	%1,5
GUZTIRA	20,85%	28,38%	24,38%

ITURRIA: Norberak egina Gipuzkoako Foru Aldundiak (www.gipuzkoa.net) Donostiako herritarren inguruan dituen datuak eta Kiroletarako Udal Patronatuak abonatuaren inguruan emandako datuak baliatuta.

Aipatu 45.395 abonuetatik 20.622 (%45) emakumeenak dira eta 24.773 (%55) gizonenak.

7 Grafikoa. Kirol Txartela abonua duten pertsonen ehunekoa sexuaren arabera.



ITURRIA: Norberak egina

Gizonen eta emakumeen abonua kopuruaren arteko aldea 4.151 abonuetakoa da. Sexu bietan abonua gehien dauden adin tarteak 41 eta 50 urteko pertsonen dagokiona da.

18 Taula. 2011ko abuztuaren 1ean Kirol Txartela abonua zuten pertsonak adin taldeka eta sexuaren arabera³²

ADINA	EMAKUMEAK	%	GIZONAK	%	GUZTIRA	%
1-10	2.741	%13,29	3.103	%12,53	5.844	%12,87
11-20	3.128	%15,17	3.917	%15,81	7.045	%15,52
21-30	2.313	%11,22	3.227	%13,03	5.540	%12,20
31-40	4.155	%20,15	4.985	%20,12	9.140	%20,13
41-50	4.383	%21,25	4.919	%19,86	9.302	%20,49
51-60	2.184	%10,59	2.762	%11,15	4.946	%10,90
61-70	1.193	%5,79	1.309	%5,28	2.502	%5,51
71-80	453	%2,20	452	%1,82	905	%1,99
80+	72	%0,35	99	%0,40	171	%0,38
GUZTIRA	20.622	%100	24.773	%100	45.395	%100


ITURRIA: KUP

Sexu bien kasuan abonua gehien dituen bigarren taldea 31 eta 40 urte artean dituzten gizon eta emakumeena da. Gizonen abonua kopuru handiagoa da adin tarte guztietan 71 eta 80 urte arteko pertsonen osatutako taldean salbu.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke abonua kopuruaren aldea adin tarte ezberdinetan.

³² Abonua gehiez gain, badira kirol klubek kudeatzen dituzten kirol instalazioei dagozkien beste 8.000 abonua. Kiroletarako Udala Patronatuaren arabera, instalazioa hauetan abonatuak dauden gizon eta emakumeen kopuruak parekoa da.

8 Grafikoa. 2011ko Kirol Txartelako harpidedunak adin taldeka eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Gizon eta emakumeen abonuen kopuruan alderik handiena 21 eta 30 urte arteko pertsonen dagokien taldean dago. Abonu kopurua murriztu egiten da 21 eta 30 urteko pertsonen artean, batez ere, emakumeen kasuan. 31 urtetik aurrera berriz ere abonuen kopuruak gora egiten du.

Halaber, abonuen adinaren eta sexuaren araberrako azterketak agerian utzi du 0 eta 10 urte arteko pertsonen kasuan, gizonek emakumeek baino 362 abonu gehiago dituztela.



3.2.2. KUPek eskaintzen dituen jarduerak

2010/2011 kanpainan KUPek orotara 75 ekintza eskaini ditu: 69 aretoko aktibitateak izan dira eta 6 igerilekukoak (igeriketako 10 eskaintza mota barne).

Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoan (2007-2013)³³ dokumentuaren arabera, KUP emakumeen parte-hartzea kirol jardueretan handitzeko lanean hasi da, batez ere, haien parte hartzea baxua den adin tartetan (12-16). Era berean, eskaintza beharretara egokitze aldera, arlo zehatz honetan garatu beharreko lan ildoetan emakumeen beharrak ezagutzea proposatzen da.

Ondorengo bi tauletan KUPek eskaintzen dituen areto eta igerileku jarduerak aurkezten dira::

19 Taula. 2011/2012an KUPek eskainitako igerilekuko jarduerak

JARDUERAK	
Igeriketa	5-12 hilabeteko haurrak
	Igeriketa 1-2 urte
	Igeriketa 3-5 urte
	Igeriketa 5-7 urte
	Igeriketa 5-12 urte
	Igeriketa 6-14 urte
	Pertsona helduen igeriketa
	Haurdun dauden emakumeentzako igeriketa
	Igeriketa 60 plus
	Bizkar igeriketa
Aquagym	
Aquagym 60 plus	
Ur fisioterapia	
60 plus mantenu gimnasia uretan	
Mantenu gimnasia uretan (pertsona helduak)	

ITURRIA: www.donostia.org

³³ Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoa 2007-2013. Eskuragarri: www.donostia.org (Kontsulta: 2011ko abenduan).


20 Taula. KUPek aretoetan eskaintzen dituen jarduerak

ACTIVIDADES		
Aerobic-a	Bizkar eskola	Peb
Gazteentzako aerobica	Esgrima	Pilates
Aerofit	Funky	Pilates quality
Aerowellnes	GAP	Pilates maquinas
Afg	Gimnasia aerobikoa	Piraguismoa
Aikidoa	Mantenuzko gimnasia aerokiboa	Sevillanak
Aretoko dantzak	Golf indoor	Shorinji kempo
Latindar dantzak	Gym Jazz	Spinning
Aretoko latindar dantzak	Hapkido	Stretching
Batuka	Hip-Hop	Street dance
Body Board	Hipopresiboak	Surfa
Body Fit + Pump	Judoa	Surfa arraunarekin
Box-Training	Karatea	Taekwondo
Brazilian Jiu Jitsu	Kempo	Taichi
Capoeira	Kendo	Tenisa
Ciclo indoor	Kick-boxing	Mahai tenisa
Gazteentzako Ciclo indoor	Kick-boxing- baletudo	Arku-tiroa
Konbinatua	Borroka olimpikoa	Tonifikazioa
Sabel-dantza	Padela	Tonifikazio funtzionala
Defentsa pertsonala	Haur padela (10-14 años)	Trx-Tonifikazioa
Defentsa pertsonala (Hapkido)	Haur padela (7-10 años)	WIng Chun
Dk-Bow	Gazteentzako padela	Yoga
Eskalada	Patinajea indoor	Yogilates

ITURRIA: www.donostia.org

2010/2011 kanpainan KUPek eskaini dituen jardueretan 15.011 pertsonak parte hartu dute, 10.877 emakumek (%72,5) eta 4.134 gizonek (%27,5).

9 Grafikoa. 2010/2011 kanpainan KUPEk eskainitako aktibitateetan parte hartu duten pertsonen ehunekoa sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Kiroletarako Udal Patronatuak eskainitako jardueretan parte hartu duten emakumeen kopurua gizonena baino nabarmen handiagoa da.

21 Taula. 2010/2011 Kirol Ekintzak Kanpainako partaidetza sexuaren arabera

	PARTE-HARTZAILEAK	EHUNEKOA
EMAKUMEAK	10.877	%72,46
GIZONAK	4.134	%27,54
GUZTIRA	15.011	100%

ITURRIA: Norberak egina Kiroletarako Udal Patronatuak emandako datuetan oinarrituta

Talde dinamiketan parte hartu duten emakumeek datu horiek berretsi dituzten. Euren esanetan, emakumeek joera handiago dute antolatutako jardueretan izena emateko eta gizonak erabilera libreko instalazioak erabiltzeko ohitura handiagoa dute.

Era berean, erabilera libreko eremuetan desberdintasunak atzematen dituzte. Gimnasioetan adibidez, gizonak eremu anaerobikoak –pisu makinak- erabiltzeko joera handia dute; eta

emakumeek, berriz, aerobikoak –bizikleta estatikoa, korrika egiteko zinta- gehiago erabiltzen dituzte.

- ✓ *“Nik uste dut aldea badela neskek eta mutilek egiten dituzten jardueretan. Zenbait makina eta aretotan neska gehiago eta mutil gutxiago biltzen dira, eta alderantziz. Makina aerobikoak, bizikletak, eliptikoa...gehiago erabiltzen dituzte neskek; makinak eta muskulazio aretoak, berriz, gehiago mutilek, jarduera anaerobikoak nahiago dituzte”.*

- ✓ *“Emakumeek eta gizonek egiten dituzten jarduerak desberdinak dira; emakumeek spinning, aerobic, pilates, yoga... bezalako jardueretan ematen dute izena. Gizonak ez dira horrenbeste antolatutako jardueretara joaten, bere kontura aritzen dira gehiago”.*

Emakume eta gizonek jaso duten sozializazio desberdinak sexu bakoitzak aktibitate fisikoaren inguruan duen jarreraren zerikusia duela uste dute. Hala, gizonentzat kirola bera helburu bat da –elkartu egiten dira kirola egiteko-, emakumeentzat, ordea, kirola jendea ezagutzeko edo sasoi mantentzeko baliabide bat da.

- ✓ *“Gaur egun bizitzeko modu bat da. Txikitatik mutilak eta neskek kirola egiten dute.*

- ✓ *“Sentsazioa daukat emakume talde txiki bat dela kirola egiten duena. Sozializazioak kirola egiteko garaian eragin handia du”.*

- ✓ *“Kirola egiten gozatu egin behar da eta hori da txikitatik erakutsi behar dena. Kirol ezberdinak probatu behar dira eta gehien gustatzen zaizuna aurkitu. Ez dakit nola egin behar den, baina, nire ustez, hori da gakoa, bakoitzak gustukoa duen kirola aurkitzea”.*

- ✓ *“Etapa bakoitzean ezberdina da ariketa fisikoa egiteko modua eta helburuak. Neskek beren denbora librean egiten duten kirolarekin pisua galtzea, giharrak indartzea... bilatzen dute; mutilek, berriz, lehiakorrek izatea, indartzea...”.*
- ✓ *“Erabiltzen ditugu (kirol eremuak) baina jendea bilatzen aritu behar duzu. Guk guztiok gure lagun taldeak ditugu, baina beste taldetxo bat egin dugu kirola egiteko”.*
- ✓ *“Kostatzen dean hastea edo berriz hastea da. Kuadrilan edo taldean bultzatuko dituen norbait behar dute, animatuko dituen eta berriz ere hastera bultzatuko dituen”.*

3.2.3. KUPez kanpoko partaidetza kirola

Ikerketa honetan parte hartu duten pertsona gehienek nabarmendu dute udal esturkturetatik eta kirol klubetatik kanpo ariketa fisiko eta kirol asko egiten dela Donostian. Hiriak aire librean kirola egiteko aukera handiak eskaintzen dituela uste dute.

Talde dinamiketan eta galdeketetan aipatu dituzten ohiko jarduera batzuk, ibiltzea, korrika egitea, bizikletan ibiltzea, patinekin ibiltzea, surfa, etab. izan dira.

- ✓ *“Pertsona gehienak aire librean ibili, korrika egin, patinatu, bizikletan ibili edo mendira joaten dira; kiroldegietan, spinning, dantza, aerobic, GAP... egiten du”.*
- ✓ *“Emakumeoi gehiago gustatzen zaigu antolatutako jardueretara joatea. Ariketa fisikoa egiteko kalera bakarrik irtetea kosta egiten zaigu. Lehen aldian kalera irteteko norbait behar izaten dugu. Emakume asko korrika egitera irteten dira kalera, askori gustatzen ez zaion kirola izan arren. Deseroso sentitzen gara zenbait lekutan eta horregatik emakume askok nahiago izaten dute jende asko ez dagoen tokietan korri egitea, inork ikus ez ditzan, lotsa dutelako, ez direlako ausartzen...”.*

Beraz, irisgarritasunari eta argitasunari dagokionean instalazioen atalean aipatutako alderdiek garrantzia berezia hartzen dute korrika egiteko edo kirola egiteko Donostian erabiltzen diren ohiko eremuen inguruan mintzatutakoan.

3.3. Eskola Kirola

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarraibideei jarraiki, Kiroletarako Udal Patronatuak eta ikastetxeek osatzen duten Donostiako Eskola Kirolaren Batzordeak, ikasturte bakoitzean Donostiako eremu bakoitzean garatuko den kirol programa osatzen du.

Eskolaz kanpo egiten den eta horrenbestez aukerakoa den jarduera hau 9 eta 14 urte bitarteko haurrekin egiten da. Hiru kategorietan banatzen dira: benjaminak (8-9 urte), alebinak(10-11), infantilak (12-13) eta kadeteak (14-15).

Gipuzkoako herrietan programak egituratu behar dira benjamin eta alebin kategorietan kirol modalitate desberdinak (kirol anitzeko eskaintza) egiteko, eta infantil kategorian gazteek talde aktibitate bat aukera dezaten, hau bakarka egiten den beste kirol aktibitate batekin bateratu badaiteke ere.

Ondorengo taulan jaso da Donostiako eskola kirolaren egungo programa:

22 Taula . 2010/2011ko Donostiako Eskola Kiroleko jardueren programa

KATEGORIA	ZIKLOA	NESKEK MODALITATEAK	MUTILEN MODALITATEAK	IZAERA
Benjamin	Bakarra	3x3 saskibaloia, areto-futbola, igeriketa, atletismoa, (aukeratzeko pilota, errugbia, eskubaloia, hockey-a, sofbola)	8 futbola, 3x3 saskibaloia, igeriketa, atletismoa, (aukeratzeko pilota, errugbia, eskubaloia, hockey-a, sofbola)	fem./mask/ misto.
Alebin ³⁴	1 ³⁵	Boleibola, saskibaloia, areto-futbola, areto hockey-a, sofbola	boleibola, saskibaloia, areto-futbola, sófbola	fem./mask.
	2	Saskibaloia, areto-futbola, eskubaloia, boleibola, 8 futbola	Saskibaloia, areto-futbola	
Infantij ³⁶	Bakarra	Aukera askoa- gehien taldekako bat+bakarkako bat	Aukera askoa- gehien taldekako bat+bakarkako bat	fem./mask.

ITURRIA: www.donostia.org

³⁴ Jarduera horiez gain, aukera dago hondartzako futbola, saskibaloia, hockey-a eta eskubaloia (azken bi hauek mutilek soilik) egiteko mareek hondartza futbolearen aritza eragozten dutenean. Era berean, bateragarri diren aktibitateak (xakea, mendia, atletismoa, igeriketa eta pilota) eta zehaztu gabeko beste batzuk (badmintona, bela, piragismoa, txirrindularitza, herri kirolak, errugbia, borroka eta samboa, gimnasia, judoa, tenisa, mahai tenisa, trialsina, patinen gaineko hockey-a eta karatea) eskaintzen dira, nahiz eta programan sartuak ez dauden.

³⁵ Lehenengo zikloa, motza, urria eta urtarrila bitartean garatzen da; bigarren zikloa, luzea, urtarrila eta ekaina bitartean.

³⁶ Kadete kategorian badira eskola kiroleko lizentziak zenbait modalitatetan; hala ere, kirol eskaintza lotuagoa dago kirol klubei ikastetxeei baino.

2009/2010 kanpainan Donostiako eskola kirola programan 5.796 ikaslek parte hartu zuten, 3.221 mutilek (%56) eta 2.575 neskek (%44).

10 Grafikoa. 2009/2010 Eskola kirolako programan izandako partaidetza sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina.

Datu orokorrak aintzat hartuta, mutilen parte hartzea neskena baino handiago da kategoriaz guztietan, infantil kategorian salbu. Alebin kategorian da neska gehien hartzen dituenak. Mutilen kasuan, eskola matrikulazioak kontuan hartuta, parte-hartze ehuneko handiena benjamin kategorian gertatzen da.

23 Taula³⁷. 2009/2010 Donostiako Eskola kirolako programan izandako partaidetza


	MATRIKULAK			LIZENTZIAK			KIROLARIAK			PARTE-HARTZEAREN %A		
	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T
BENJAMINA	1.690	1.764	3.454	2.542	4.502	7.044	966	1.374	2.340	%57,16	%77,89	%67,53
ALEBINA	1.792	1.811	3.603	2.336	3.553	5.889	1.069	1.372	2.441	%59,65	%75,76	%67,71
INFANTILA	1.810	1.872	3.682	875	1.289	2.164	443	371	814	%24,48	%19,82	%22,15
KADETEA	1.638	1.696	3.334	329	255	584	97	104	201	%5,92	%6,13	%6,03
GUZTIRA	6.930	7.143	14.073	6.082	9.599	15.681	2.575	3.221	5.796	%37,00	%45,00	%41,00

ITURRIA: Norberak egina www.kirolbegi.net orrian lortutako datuak erabilia.

³⁷ Lizentzia kopurua handiago da kirolariena baino, kirolari bakoitzak jarduera bat baino gehiago egiten baitu. Zenbatzen dena jarduera bakoitzean egiten den parte-hartze kopurua da eta ez kirolariena.

Bi sexuen parte hartzea kirolariak adinean aurrea joan ahala jaitsi egiten da, batez ere, infantil kategoriatik aurrera.

11 Grafikoa. 2009/2010 Eskola kiroleko programan izandako partaidetza



ITURRIA: Norberak egina

Benjamin eta alebin kategorietan neska eta mutilen aldea 303 eta 408 pertsonakoa da hurrenez hurren. Infantil eta kadete kategorietan, ordea, aldea murriztu egiten da eta mutilen parte hartzea neskena baino zertxobait handiago baino ez da.

Bi kontu azpimarratu daitezke: batetik, mutilen parte-hartzearen beherakada futbolean edo beste kirol modalitate batean parte hartzen dutelako izan daiteke, adin honetan mutil asko kirol klubetan aritzen baitira federatutako lizentziarekin; bestetik, mutilekin alderatuta, nesken parte-hartzearen beherakada kirol uztearekin egon daiteke erlazionatuta eta ez kirol praktikaren eremu aldaketarekin.

Eskola kirolaren programan gehien egiten diren kirol praktikei³⁸ dagokienez, nabarmendu egiten dira saskibaloia (4.052 lizentzia), futbola (2.763 lizentzia), eskubaloia (1.069 lizentzia), mendia (891 lizentzia), gimnasia (852 lizentzia) eta areto-futbola (827 lizentzia).

12 eta 16 urte tarteko gazteen kirol uztea, batez ere nesken kasuan, presente izan du KUPek Donostiako kirolaren inguruan egin dituen dokumentu ugarian³⁹. 2009an eskola kirolaren programaren inguruko hausnarketa egin zuen KUPek. Bertan, egungo egoeraren azterketa egin eta programa bera hobetzeko jarraitu beharreko ildoak definitu zituen. Hausnarketaren ostean osatu zen dokumentuan⁴⁰ honako helburuak zehaztu ziren:

- Ikastetxeen inplikazioa handiago lortzea, ikastetxeen urteko planaren barruan kirol programak sartuta,
- Ikastetxeek kirol proiektuaren kontrolerako eta gainbegiratzeko baliabideak ezartzea
- Kirol koordinatzailearen papera finkatzea.
- Gurasoen eta federazio eta klubaren arteko lankidetzaren bultzatzea.

Hiru ardatzetan oinarritzen dira aipatutako dokumentuan zehazten diren lan ildoak:

- Eskola kirolaren egiturak
- Aktibitateak
- Difusioa hirian

Lan ildo ezberdinetan aipatzen diren arloen artean, ikerketa honi dagokionez eta zehazki eskola kirolaren inguruan egin diren talde dinamiketan jaso diren iritziak kontuan hartuta, monitoreen formazioa eta parte-hartzea handitzea dira nabarmendu diren puntuetako bi. Era berean, eskaintzan indarra jarrita eta genero ikuspegi batetik Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako saltoan gertatzen den kirol uztean eragiten duten arrazoiak ezagututa, garrantzitsu jo da 12 urtetik aurrera gertatzen den kirol uztea eragoztekoa.

³⁸ Iturria: www.kirolbegi.net (Kontsulta: 2011ko abenduan). Orientatzeko, 800 lizentzia baino gehiago dituen modalitatean izan dira kontuan. Informazio hau ez dago sexuaren arabera banatuta, horregatik ez da egin sexuaren arabera gehien egiten diren jardueren azterketa sakona. Hala ere, interesgarria da gisa honetako azterketa bat egitea hiriko kirol klubetako kirol jarraikortasunaren inguruan.

³⁹ Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoa 2007-2013. Eskuragarri: www.donostia.org (Kontsulta: 2011ko abenduan) eta *Eskola Kirola Donostian: Gaur egungo egoera eta helburuak* (KUPek emandako dokumentua)

⁴⁰ Ibid 39 (eskola kirolaren inguruko dokumentua)

Hauek eta beste arlo batzuk landu dira eskola kirolaren inguruan egin den talde dinamikan. Jarraian, aipatu dinamikan landu diren zenbait arlo zerrendatu dira, bai eta parte hartu duten pertsonen haien inguruan egin dituzten aipamenak eta eman dituzten iritziak:

Ereduak eta erakartzea

- ✓ *“San Patricio ikastetxean kirolari erreferenteak eramaten ditugu elkarrizketatzeko eta neska mutilek eurekin hitz egiten dute”.*

Antolaketa eta parte-hartzea

- ✓ *“Emakumeen eta gizonen parte-hartzea eskola kirolean desberdina da; ikerketa egin genuenean argi eta garbi atzeman genuen hori”.*
- ✓ *“Neska gehienek gimnasia erritmikoa egiten zutela eta ez zutela talde kirolik egiten ikusi genuen. Zerbait egin behar zela erabaki genuen, horretan ari gara, orain emaitzak ikusi behar dira”.*
- ✓ *“Neskei behin eta berriz esanda ere, pasa den urtean talde bakar bat egin genuen eta kirol zehatz batean”.*
- ✓ *“Niri harritu egiten nau. Ni ikasle gutxi eta curriculum lerro bakarra duen eskola txiki batean nago. Neska guztiek egiten dute jarduera fisikoren bat, unean egokitzen dena, futbola, saskibaloia, eskubaloia... mutilek bezala. Eskola berdinetik pasa dira, izan daiteke ohitura... urtero ateratzen ditugu nesken eta mutilen taldeak”.*
- ✓ *“Benjaminetan ez du kirolik planteatzen ikastetxeak; KUPek zehazten ditu bi kirolak eta hirugarrena guk aukeratzen dugu, baina aukera itxi baten barruan. Uste dut guztia oso kokatua, itxia eta itoa dagoela”.*
- ✓ *“Partiden antolaketa federazioen esku dago eta, beraz, euren eskuetan gaude. Donostia handia da eta arazo handiak daude antolaketarekin”.*

- ✓ *“Nire uste,z eskola kirolak zerbait gehiago izan beharko luke. Hilabetero zerbait desberdina egiten dugu, eskolak horretara moldatzen ditugu eta gero aste buruetan partidak izaten dira. Normalean mutilak ez dute eskola kirolean izenik ematen, futboleak, saskibaloian, eskubaloian... baizik. Hau da, kirol zehatz batean eta ez kirol desberdinak egiteko. Nire ustez, aldaketa handiak egin beharko lirateke eta horretan inbertitu”.*

Estereotipoak eta kirol uztea

- ✓ *“Niri berdin zait banakako edo taldeko kirol bat egiten duten, nik jarduera fisikoa egin dezaten nahi dut”.*
- ✓ *“Gaur egun neskei egiten zaien planteamendua mutilei egiten zaien planteamenduan dago oinarritua”.*
- ✓ *“Desberdinak dira Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako kasuak, istorio desberdinak dira. Nik ikusi dudanez, Lehen Hezkuntzan gimnasia erritmikoa egiten dutenak, Bigarren Hezkuntzan ez dute ezer egiten. Horregatik uste dut Lehen Hezkuntzan kirol ezberdinak egin beharko lituzketela, guztiak probatu, gero bateren bat aukeratzeko”.*
- ✓ *“Gure kasuan ere gehienek gimnasia erritmikoa egiten dute eta talde kirolean borrokan aritzen gara kurtso bakoitzean talde bat egiteko edo bi kurtso elkartu eta talde bat egiteko. Horretan gabiltza. Gero Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako saltoa oso zaila da, kirola egin dezakete, baina gero kirola egiteko beharra sentitzea oso zaila da”.*

Monitoreak

- ✓ *“Monitoreen artean alde handiak daude. Badira Batxilergoko ikasleak, lehengo ikasleak, irakaskuntzako ikasleak, SHEE ikasleak... Taldea eramaten jakin behar*



dute; neska eta mutilekin ondo portatu eta saioak prestatzen badakite, emaitza nahiko ona izan daiteke”.

- ✓ *“Gure monitoreek ez dute kobrantzen, borondatezko lana da”.*
- ✓ *“Dirulaguntza jaso nahi badugu, Patronatuak eskatzen digu monitoreen hiru laurdenak titulazioa izan behar dutela, baina kalitatezko ezer egin nahi baduzu pertsonaren bat kontratatu behar da eta diru asko da. Ikastaroak egin ditzakete monitore izateko, baina gero ez badute kobratzen hurrengo ikasturtean joan egingo dira”.*
- ✓ *“Zenbait kasutan hezkidetzaren arloan lan egin nahi dugu, baina ez dugu hori egiteko prestatuta dagoen monitorerik”.*
- ✓ *“Gure monitoreek astean bi ordu emateagatik hilabetean 130 euro jasotzen dituzte”.*
- ✓ *“Teknika eta grina izan behar da mutilak eta neskek zaletzeko”.*
- ✓ *“Nik uste dut neskek aparteko motibazioa behar dutela txikitatik dituzten zailtasunak gainditzeko. Lehen monitore gehienak mutilak ziren”.*
- ✓ *“Guk ordu asko ematen ditugu musu-truk. Legalki ez dago eskola kirolaren koordinatzailea aitortua. Ikastetxe pribatuetan kontua aldatu egiten da, baina publikoetan ez”.*
- ✓ *“Eskola kirolaren egitura indartzeko ikastetxeak kirol plan bat egin dezake eta horretarako dirua ematen da Kiroletarako Udal Patronatutik... Baina ni bezala koordinazioa inolako lansaririk gabe egiten dugunok, nondik atera behar dugu Administrazio Publikoek ezagutzen ez duten denbora hori? Beste kontu bat eskola pribatua da. Nik ikusten dut D.B.H-n jendea kontratatzen ari dela; parte hartzen duten pertsonen kopurua ere handiagoa da, ordea”.*

- ✓ *“Kordinatzaileak jarduerak gainbegiratzen egon beharko luke. Nire lan-eguna lautan amaitzen dut eta hori bostetan hasten da. Nik ez ditut ordu horiek kobratzen. Orduak musu-truk egitea da”.*
- ✓ *“Arautu egin beharko litzateke edo gutxienez, arlo hau gehiago kontrolatu”.*


Gurasoen sostengua

- ✓ *“Guk ikasgeletan arlo desberdinak lantzen saiatzen gara, baina gero partituetara joan eta gurasoak ‘hauek ez dute ezer egiten!’, ‘hauek zertan egiten dute lan, ez dute eta entrenatzen’... Gurasoei argi utzi behar zaie eskola kirola zer den”.*
- ✓ *“Familia batzuk hitzematen dute euren seme-alabak eskola kirolean izena emanez gero joango direla, edo gutxienez, partiduei dagokionez lagunduko dutela; baina beste familia batzuk ez dute hitzematen”.*
- ✓ *“Beste familia batzuk diote euren seme-alabak jarduera fisikoa egin dezaten nahi dutela, baina ez dutela partiduetara joaterik nahi; horrek eurei beste konpromiso bat suposatzen dielako”.*
- ✓ *“Lehen familiek ez zuten astebururako planik izaten eta partidak plan bat ziren, baina egun familiek planak dituzte”.*
- ✓ *“Guraso batzuk esaten digute lehiaketak astean zehar egin daitezkeela, baina hori ere eromena litzateke”.*
- ✓ *“Aurten lehiaketarik gabeko jarduera fisikoa planteatu dugu, modu horretan lehiatu nahi ez duen edo beste konpromisorik izan nahi ez duen jendearengana iristeko”.*

3.4. Errendimenduko kirola

45 kirol modalitate bere baitan hartzen dituzten 210 kirol klub dauden Donostian. Egun hirian 22.904 lizentzia federatu daude, horietatik 5.293 emakumeenak (%23) dira eta 17.611 gizonenak (%77)⁴¹.

12 Grafikoa. 2008/2009ko Donostiako lizentzia federatuen portzentaia sexuaren arabera.



ITURRIA: Norberak egina

Lizentzia kopuru handiena ehiza modalitatean dago; 6.764 gizonek dute lizentzia hau eta emakume bakar batek ere ez. Lizentzia gehien pilatzen dituen bigarren modalitatea golfa da, 1.690 lizentzia maskulino eta 1.256 femenino. Emakumezkoen lizentzia gehien dituen kirol modalitatea mendia eta eskalada da, 1.647 lizentziarekin.

24 Taula. 2008/2009 Lizentzia federatuak modalitatea eta sexuaren arabera.

MODALITATEA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Ehiza	0	6.764	6.764
Golfa	1.256	1.690	2.946
Mendia eta eskalada	1.647	877	2.524


⁴¹ Iturria: www.kirolbegi.net (Kontsulta: 2011ko abenduan).

Futbola	280	1.459	1.739
Saskibaloia	654	606	1.260
Txirrindularitza	3	1.197	1.200
Hockey-a	189	285	474
Igeriketa	129	258	387
Neguko kirolak	110	271	381
Arrantza	19	351	370
Surfa	73	296	369
Padela	107	158	265
Kirol egokitua	84	179	263
Urpeko jarduerak	73	189	262
Karatea	0	253	253
Judoa	27	221	248
Errugbia	50	198	248
Xakea	16	228	244
Arraunketa	46	185	231
Pilota	0	227	227
Atletismoa	58	146	204
Taekwondo	28	166	194
Piraguismoa	29	165	194
Boleibola	155	24	179
Eskubaloia	59	97	156
Tenisa	50	103	153
Beisbola y Softbola	0	135	135
Bela	0	133	133
Triatloia	11	92	103
Arku-tiroa	21	81	102
Hipika	46	50	96
Aire kirolak	4	84	88
Bolo-jokoa eta toka	6	77	83
Areto-futbola	0	72	72
Tiro olinpikoa	3	67	70
Motoziklismoa	2	62	64
Mahai-tenisa	11	39	50
Boxeoa	0	49	49
Gimnasia	44	0	44
Patinajea	0	20	20
Automobilismoa	0	19	19
Herri kirolak	2	15	17
Badmintona	0	10	10
Billarra	1	8	9
Borroka eta Samboa	0	5	5
GUZTIRA	5.293	17.611	22.904

ITURRIA: www.kirolbegi.net

Gizonenekin alderatuta, emakumezkoen lizentzia kopurua nabarmen baxuagoa da modalitate guztietan, saskibaloian, mendia eta eskaladan, boleibolean eta gimnasia izan ezik. Garrantzitsua da, halaber, aipatzea zenbait kirol modalitatetan –ehiza, karatea, pilota, beisbola, pilota, beisbola eta sofbola, bela, areto-futbola, boxeoa, automobilismoa, badmintona eta borroka eta samboa- ez dagoela emakumezko lizentzia bakar bat ere.

13 Grafikoa. 2008/2009ko nesken lizentzien banaketa modalitatearen arabera⁴²




ITURRIA: Norberak egina

Emakumeek gehien praktikatzen dituzte kirol modalitateak mendia eta eskalada (%31), gofka (%24), saskibaloia (%12) eta futbola (%5) dira.

⁴² Eskuineko legendan zerrendatu diren modalitateek %1eko edo gutxiagoko lizentzia portzentajea dute.

Donostiako emakumeek kirol modalitate asko egiten dituzte, lizentzia federatuen banaketan ikusi den moduan. Hala ere, lizentzia kopurua, gizonenekin alderatuta, askoz ere baxuagoa da eta zenbait modalitatetan ia hutsala.

14 Grafikoa. 2008/2009ko mutilen lizentzien banaketa modalitatearen arabera⁴³



ITURRIA: Norberak egina


Gizonek gehien egiten dituzten kirol modalitateak ehiza (%38), golfa (%10), futbola (%8) eta txirrindularitza (%7) dira.

⁴³ Ibid 42.

Donostian eskaintzen diren aipatu 45 kirol modalitate federatuetatik, lizentzia maskulinorik ez duen bakarra gimnasia da.

Lizentziak kategorien arabera aztertuta, datuek azaldu dute emakumeen kirol jardura federatuak behera egiten duela kadete mailatik (14-15 urte) jubenil⁴⁴ mailara (16-17) pasatzean.

15 Grafikoa. 2008/2009ko lizentzia federatuen portzentaia kategoria eta sexuaren arabera.



ITURRIA: Norberak egina

Gizonen kasuan ere atzeman daiteke lizentzia kopuruaren beherakada kadete eta jubenil mailaren arteko saltoan, baina berriz ere gora egiten du senior kategorian. Hain zuzen, azken kategoria horretan kokatzen da gizon kopuru handiena, maila guztiak kontuan hartuta. Datu horiek agerian utzi dute gizonak, emakumeekin alderatuta, urte gehiagotan jarraitzen dutela kirol federatua egiten.

⁴⁴ Azterketa honetan ez da junior maila kontuan hartu; izan ere, soilik zenbait kirol modalitatek (adibidez, saskibaloiak) mantentzen dute jubenil mailaren amaiera eta 19 urte artean kokatzen den kategoria hau.

25 Taula. 2008/2009ko kirolarien lizentzia federatuak kategoria eta sexuaren arabera.

KATEGORIA	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA
KADETE	536	1.082	1.618
JUBENIL	127	880	1.007
JUNIOR	338	397	735
SENIOR	2.969	10.706	13.675
BETERANOA	9	1.180	1.189
GUZTIRA⁴⁵	3.979	14.245	18.224

ITURRIA: www.kirolbegi.net

12 eta 18 urte artean gertatzen den kirol uztearen inguruan azaldu diren datu horiek berretsi dituzte KUPen dokumentuen azterketak eta talde dinamiketan parte hartu duten pertsonek. KUPek eskaintzen dituen jardueretan emakume asko egoteak ez du esan nahi federatutako kirola uzten duten emakumeek berehala ematen dutela izena gisa honetako jarduera batean.

Dinamiketan parte hartu duten emakumeen esanetan, 16 eta 23 urte artean geldialdi bat gertatzen da. Ondoren, jardueraren bat egin behar dutela pentsatzen dute emakumeek, baina kasu askotan lotura gehiago du helburu estetikoekin, ondo pasatzearekin edo lagunak egitearekin baino. Oraindik orain, kasurik gehienetan emakumeen gain erortzen diren familia erantzukizunak eta denbora libreba bateratzea ahalbideratzen duen jarduera da, gainera. Aurretik aipatu bezala, errendimendu kirolak edo klubak baitan egiten den kirolak, batez ere, talde modalitateek, kirolari gehienak bertaratzea eskatzen du entrenamenduak behar den moduan egiteko.

Orokorrean, errendimendu kirolaren inguruan egin den dinamikan parte hartu duten emakumeek uste dute emakumeek gizonak baino oztopo gehiago dituztela klubak baitan kirola egiteko. Hezkuntzak, estereotipoek eta sexu bakoitzari egotzi zaizkien gizarte rolerak eragina dutela uste dute, baina, halaber, klubak baitan desberdintasunak sumatzen dituzte.

⁴⁵ Lizentzia guztiek kopuruak ez da aurreko taulan eskainitakoaren berdina, kasu honetan kirol lizentziak baino ez baitira kontuan hartu (kanpoan utzi dira teknikoak eta beste lizentziak).

Ildo honetan, KUPek, Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoan (2007-2013) errendimenduko kirolaren eremuko lan ildoak lantzean, Donostiako kirol klubien barruan berdintasuna bermatu beharra nabarmendu du.

Nahiz eta errendimenduko kirolaren talde dinamiketan ez aipatu, badira KUPek, bere eskumeneren esparruan, bermatu beharko lituzken zenbait alor; besteak beste, emakumeei zuzendutako eskaintzaren kalitatea, batez ere, klubien baitan egiten den baliabide banaketari (entrenatzaileen formazioa, esleitutako instalazioak eta ordutegiak, material eta kirol ekipamenduan inbertsioa...) lotua.

Jarraian, emakumeen kirol praktika federatuen eragina duten faktoreen inguruan jasotako iritziak zerrendatu dira:

Estereotipoak, hezkuntza eta parte-hartzea

- ✓ *“Mutil gehiago dago kirola egiten, ez dakit estereotipoengatik izango den...”.*
- ✓ *“Donostian ikus daiteke eskubaloian mutil gehiago daudela, ez baitago eskubaloian jokatzeko kulturarik”.*
- ✓ *“Futbolearen desberdintasun argia dago; izan ere, guri ez digute belar artifizialean jokatzeko uzten eta mutilei bai. Mutilak zelaian jokatzeko ari badira guri bazter batera bultzatzen gaituzte”.*
- ✓ *“Surfean ez dago lizentzia duten eta lizentziarik ez duten kirolarien artean horrenbesteko alderik, guztiak eremu berdinean egiten baitugu surfa. Mendiaren oso antzekoa da, istripuen kasuan aseguruia izateko federatzen zara batez ere. Bi modalitateen lehiaketetan bai ikusten direla aldeak nesken eta mutilen parte-hartzearen artean”.*
- ✓ *“Txikitatik markatzen dizkigute gure sexuarentzat egokiak diren modalitateak”.*

- ✓ *“Herriaren edo hiriaren arabera, modalitate baten edo beste baten gaineko kirol kultura aldatu egiten da”*
- ✓ *“Txikitan modalitate batean ematen duzu izena zure lagunek ere hala egin dutelako”.*

Baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta materialak

- ✓ *“Klubari kuota bat ordaintzen diogu eta horregatik entrenatzeko pistak nahi adina erabil ditzakegu”.*
- ✓ *“Oso pozik gaude orain entrenatzeko zelai espezifikoa dugulako. Klubak zelaia ustiatzeko enpresa pribatu batekin hitzarmena egin du, baina guk lehentasuna dugu zelaia erabiltzeko, ordutegietarako...”*
- ✓ *“Lehen Zumaiara, Zumarragara... joan behar izaten genuen entrenatzera. Ezin izaten genuen gure hirian entrenatu, nesken talde bakarra izanda, ez genuelako zelai bat”.*
- ✓ *“Nik arazo handiak izan ditu lehiaketa nazional eta internazionaletara joateko. Inoiz ez dut laguntzarik jaso eta bien bitartean baziren mutilak lehiaketa berdinetan parte hartzen zutenak eta laguntza jasotzen zutenak”.*

Laguntzak, aintzatespena eta kirol uztea

- ✓ *“Alebinetan mutilek eskola kirola uzten dute eta klubetara joaten dira, jarraitzen duten neskek ez dute joan ahal izateko klubik”.*
- ✓ *“Neskak unibertsitatea iristean errendimenduko kirola uzten dute. Jarraitu nahi dutenak edo oso onak dira edo ez dute inolako aukerarik talde batean, helduak direlako edo bere kategorian jokatzeko hain onak ez direlako (adinagatik)”.*



- ✓ *“Nire familiak babesten nau, baina beti ere garrantzitsuena ikasketak direla buruan hartuta”.*
- ✓ *“Buruan dugu kirola bizitzeko modu bat dela, baina ahaztu gabe bizitzeko ikasketak behar direla”.*
- ✓ *“Mutil bat ona bada kirolean profesionala izatera iris daitekeela pentsatzen hasten da, baina neskek izan arte ez dute pentsatu ere egiten, oso zaila baita neska bat profesionala izatea”.*
- ✓ *“Familia erantzukizunak oraindik ere emakumeen gain daude (ohea egin,ontziak garbitu...)”.*
- ✓ *“Entrenatzen denbora asko ematen nuen eta nire entrenatzaileak nire gurasoei esan zien, nire lagunekin jolastu behar nuela, hori garrantzitsuagoa zela; baina nik kirola egin nahi nuen eta ez zidaten uzten”.*
- ✓ *“Oso garrantzitsua da emakumezko kirolariak komunikabideetan ateratzea”.*
- ✓ *“Oso zaila da emakume batentzat goi mailako kirolera iristea, oso laguntza gutxi baitu”.*

3.5. Goi mailako kirola

Gaur egun Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) *Consejo Superior de Deportes*-ek hala ezagututako 523 goi mailako kirolari⁴⁶ (331 gizon eta 192 emakume) daude.

Goi mailako kirolari ez profesionalei laguntzeko laguntza mota desberdin daude, ADO⁴⁷ beka, Kirolgi Fundazioako⁴⁸ beka edo BAT Basque Team-eko⁴⁹. Bekak.

Orotara, 20 EAEko 20 kirolarik, 11 gizonek eta 9 emakumek, jasotzen dute ADO beka. 20 Pertsona horietatik, 11 gipuzkoarrak dira, 5 emakume eta 6 gizon.

Bere aldetik, BAT Basque Team-ek 69 kirolariri ematen dio beka, 27 emakumeri eta 45 gizoni. Horietatik, 5 emakume donostiarrak dira edo hirian entrenatzen dute eta egiten dituzten kirol modalitateak belar hockey-a (2), txirrindularitza, igeriketa eta piraguismoa dira.

Kirolgi Fundazioak lau lan ildoren –kirolariak, ekipoak, klubak eta entrenatzaileak- arabera banatzen ditu laguntzak eta 2011 urtean orotara 55 kirolari babestu ditu, 23 emakume eta 32 gizon, eta 32 talde, nesken 14, mutilen 16 eta bi misto.

⁴⁶ Goi mailako kirolari dira Consejo Superior de Deportes erakundeko lehendakariaren erabakiarekin hala akreditatzen direnak. Goi mailako kirolarien zerrenda Estatuko Boletín Ofizialean argitaratzen da. Goi mailako kirolarien emaitza. www.csd.gob.es (Kontsulta: 2011ko abenduan)

⁴⁷ ADO “Goi Mailako Kirolari Olimpikoei” laguntzen dien programa da. Helburu nagusia Joku Olimpikoetan kirolarien emaitzak hobetzea da eta ezaugarri ditu bere irizpideen zorrotasuna eta kirol bikaintasuna bilatzea. www.csd.gob.es (Kontsulta: 2011ko abenduan)

⁴⁸ “Kirolgi Fundazioa irabazteko asmorik gabeko erakundea da, eta bere azken helburua da Gipuzkoako kirolaren sustapena eta garapena, errendimenduko kirolari arreta berezia eskainiz, laguntza publiko eta pribatuaren bitartez”. www.kirolgi.org (Kontsulta: 2011ko abenduan).

⁴⁹ “. ...Nazioarteko lehia eta, batez ere, punta-puntako kirol ekitaldietan, ordezkaritza oparoa ahalbidetuko duen goi mailako euskal kirolaren garapen egokia sustatzea; halaber, aipatutako lehiaketetan euskal kirolarien goi mailako emaitzak lortzea”. www.basqueteam.com (Kontsulta: 2011ko abenduan).

26 Taula. 2011/2012 kanpainan Kirolgi Fundazioaren laguntzak

	GIPUZKOA			
	E	G	MISTOAK	GUZTIRA
Kirolariak	23	32		55
Taldeak	14	16	2	32
Klubak⁵⁰	18	29		47
Entrenatzaileak	2	16		18

ITURRIA: Norberak egina, Kirolgi Fundazioaren www.kirolgi.org orrian lortutako informazioa erabilia

Garrantzitsua da, halaber, nabarmentzea Kirolgi Fundazioak kirolariei formazio akademikorako laguntzak eskaintzen dizkiela eta Sifolito Programaren bitartez, “kirol errendimendua ontze aldera, lehiaketetan aholkularitza teknikoa, taktikoa, fisikoa eta psikologikoa” ematen diela⁵¹.

Beka jasotzen duten Gipuzkoako taldeen %43 donostiarrak da. Hain zuzen, 32 dira beka jasotzen dutenak eta 14 dira Donostiakoak, emakumezkoen 6 talde, gizonezkoen 6 talde eta 2 misto.

Goi mailako kirolaren arloan Donostiako Udalaren eskuduntzak mugatuak dira. Instalazioak euren eskura jarri eta klubei ematen zaizkien diru-laguntzen bidez banatzen den laguntza ekonomikora mugatzen dira.

Euren egoeraren inguruan emakumezko kirolariek eta emakumezko taldeek duten iritzia jasotze aldera eta Donostiako Udalaren eskuduntza eremuaren baitan egoera hobetu dezaketen arloak identifikatzeko, parte-hartze dinamika bat egin zen. Donostiako goi mailako emakumezko taldeak eta kirolariak (profesionalak eta ez profesionalak) gonbidatu ziren, bai eta Donostiako kirolarekin zerikusia duten kazetariak ere.

Jarraian zerrendatu dira talde dinamikan goi mailako emakumezko kirolarekin erlazioa duten hainbat eremuren inguruan jaso ziren iritziak⁵².

⁵⁰ Babestutako klubuen informazioa 2010/2011 kanpainakoa da.

⁵¹ ITURRIA: www.kirolgi.org

⁵² Goi Mailako kirolariek kirol instalazioen inguruan aipatu dituztenak instalazioen inguruko 3.1.2 atalean sartu dira.

Goi mailako kirolarien egungo egoera

- ✓ *“Taldearen eta modalitatearen arabera aldatu egiten da. Bera-Bera talde profesionala denez... eta futbolean ere berdin, baina gero gu gaude. Zaila da, talde bakoitzak gauza desberdinak lortu nahi baititu. Bera-Beran denek kobratzen dute eta denek dute Gizarte Segurantza, talde profesionala da. Gero gu gaude, beste maila batean”.*
- ✓ *“Nesken taldea klubean sartzea zaila izan zen, baina bestela ez dugu entrenatzeko zailtasunik. Guztia egin zuten klub batera sartu ginen, sarrera arraroa izan zen, baina hazten joan gara. Urtero lortzen joan garen emaitzen bidez gure lekua egin dugu... Ordutegiekin badugu arazoren bat, Ohorezko mailako jubenilekin borrokan aritu behar izaten dugu eta uste dugu gu ezin gaituztela maila horrekin alderatu. Xehetasunak dira, baina elitean bagaude, hala gaude. Hobetzen joan behar da”.*
- ✓ *“Jaeneraino autobusez joan behar izatea, hegazkinean joan beharrean... Hegazkinez bazoaz gorputzaldi hobea duzu partidurako eta ez duzu horrenbeste denbora galtzen bidaian”.*

Kirolarien egoera ekonomikoa

- ✓ *“Kobratuz gero konpromiso gehiago duzu kobratzen ez baduzu baino. Nik gustatzen zaidalako jokatzeko dut, baina kobratuko banu konpromiso gehiago izango nuke. Nik ikasketak kirolaren aurretik jartzen ditut; kobratuko banu, zalantzan jarriko nuke edo behintzat maila bat igoko nuke”.*
- ✓ *“Ez da dedikazio gehiago, baina bai erantzukizun handiagoa. Nik behintzat horrela hartuko nuke gutxienez. Nire lehentasuna nire ikasketak dira, eta kirola egiten dut arratsaldean korrika egitera ateratzen den pertsona batek egiten duen modu berean.”*

Arratsaldean korrika egitea irteten denak ez du kobratzeko beharrik sentitzen. Nik horrela hartzen dut. Baina gustatuko litzaidake laguntzaren bat izatea”.

- ✓ *“Alde nabarmena dago kobratu edo ez kobratu. Kontu bat soldata bat izatea da eta bestea... gutxienez laguntza bat izan”.*
- ✓ *“Guk profesionalak izan nahi dugu, baina ezin dugu. Araudia horrela dago eta kitto!. Beti esan izan da emakumezkoen futboleak badirela jokalariek profesionalak, baina ez da orokorra den zerbait. Jokalariak laguntza extra bat dute, diru-laguntzaren bat edo futbolaren arlokoak ez diren kontratuak. Nik uste dut profesionalizatzeko guztia hobetuko lukeela. Jokalaria horretarako biziko litzateke. Orain gure jokalariek lan egiten dute, ikasi egiten dute eta entrenatu egiten dute. Exijentzia erabatekoa da eta honetatik kanpo maila guztietan zaindu behar duzu; ia profesionalak dira, baina sari ekonomikorik gabe”.*
- ✓ *“Ikasketak eta kirola bateratu ditzakezu, ¿zergatik ez? Akaso ezingo lukete urtean urtekoa atera, baina urte gehiagotan egin daiteke”.*
- ✓ *“Nik azterketak baditut taldean planteatu dezaket, baina ahal dudan guztia egiten dut. Ez dago arau bat azterketak badituzu ez zatorrela entrenatzera edo partidura. Bada jendea astelehenean azterketa badu, partidura ez joatea erabakitzen duena”.*
- ✓ *“Bera Bera-koak bezala profesionalak izatea... Kirola bere bizitzeko modu egiten dute eta baldintza onetan”.*

Emakumeak beste alor batzuetan: kudeatzaileak, entrenatzaileak, arbitroak

- ✓ *“Jarraitasuna duten emakume gutxi daude. Hori nahi dute, baina ekonomikoki ezin baditugu kontratatu joan egiten dira. Kategoria guztietan, lehen mailakoak eta oinarrietakoak barne. Bada jendea sari ekonomiko batekin, baina horixe bakarrik”.*

Komunikabideak, ikustaraztea eta aintzatespena

- ✓ *“Albiste garenean baino ez gara ateratzen, baina beti atera beharko genuke, albiste izan gabe ere. Posible da urte batean emaitza onik ez ateratzea edo txapelketarik ez irabaztea... orduan zer gertatzen da? ¿Ez gaituzte ateratzen? Egiten duguna, egiten dugun modua, emaitzak, egunerokoaren berri ematea... gehiago ikusi behar gaituzte”.*
- ✓ *“Prentsan ez bazaude, ezin duzu babesik lortu”.*
- ✓ *“Nik uste dut komunikabideek erantzukizun handiena dutela gai honetan. Isatsari kosk egiten dion arraina bezala da. Ez baduzu saltzen ez duzu ateratzen. Nik uste dut emakumezko kirolaren alde ekintza positiboa egiteko kasu argia dela. Komunikabideek botere handia dugu eta giltza dugu joerak, ohiturak eta interesak sortzeko. Oraintxe bertan munduko futbol txapelketa jokatzeko ari da eta harritu egiten nau inaugurazio ekitaldian 72.000 pertsona egonda, hona ez ezer iristea. Sarreraren %85 txapelketa hasi aurretik salduak zeuden. Hemen ez gara ezertaz ohartzen ari. Nik galdetzen dut...¿Zer ari da pasatzen? Ez du interesik pizten. Ulertu dezaket komunikabide pribatu batek errentagarria ez delako ez duela emango esatea, baina komunikabide publiko batek eskaintzeko beharra du”.*
- ✓ *“Mutilak albiste dira albisterik ez bada ere. Norbaitek beti gainean egon behar du, ‘eta hau zergatik ez dugu egiten?’ esaten, bestela ez da ezer egiten”.*
- ✓ *“Ni astelehenetan irrati solasaldian egoten naiz eta han ahal dudan guztietan emakumea eta kirolaren inguruan zerbait esaten saiatzen naiz”.*
- ✓ *“Askotan nabaritu egiten da kazetari zehatz bat dagoenean; izan ere, bera dagoenean beti hitz egiten da emakumearen inguruko gai baten inguruan. Komunikabidean dagoen pertsonak eragin handia du”.*

- ✓ *“Tristea da, baina ezer egiteko, konpromiso pertsonala izan behar da. Egunero borrokan aritu”.*

- ✓ *“Ateratzen gara, baina guk geronek bidaltzen dugulako gure informazioa”.*

- ✓ *“Guri asko laguntzen digu jendeak behin eta berriz deitzea”.*

- ✓ *“Garrantzitsua da ekitaldi sozialetan egotea, ekitaldien aurkezpenetan, argazkian ateratzea, hor egotea. Pentsak nortzuk garen ez badaki ere, ikasiko dute, pixkanaka joango gara. Oztopoak ditugu, baina argazkian egon behar dugu. Gero galdetuko dute zeintzuk garen... Denborarekin gure aurpegiak ezagutuko dituzte, baina beti hor egon beharra dago”.*

3.6. Kirol jarduerak

Donostiako Udalak 95 kirol jarduera bereziren⁵³. antolaketa diruz lagundu zuen iaz.

27 Taula. 2010ean Donostiako Udalak kirol jarduera berezietarako emandako diru-laguntzak

	JARDUERA	KLUB ANTOLATZAILEA
1	Aerobithon	Aerobic Kirola eta Natura
2	Eguberritako 3x3	Askatuak Saskibaloia Taldea
3	3 X 3 kalean	Askatuak Saskibaloia Taldea
4	Antiguako XX. Herri lasterketa Berria!	Bagera elkarte
5	V. Donostia Basket Txapelketa	Bera Bera R.T.
6	Zurriolako VI. Eurohiria hondartza bolei txapelketa	Bera Bera R.T.
7	III. Ezinduentzako Nazioarteko Karate Txapelketa	Bera Bera R.T.
8	Donostia-Baiona-Donostia Eurohiria 9. Zikloturista ibilaldia zikloturisten 9. ibilaldia	Bera Bera R.T.
9	Hondartza Krossa	C. Atlético San Sebastián
10	Zeharkaldia: uharteari buelta eman	C. Atlético San Sebastián
11	Emakumeen II Triatloia	C. Atlético San Sebastián
12	Zazpiko Errugbia Txapelketa	C. Atlético San Sebastián
13	Familien arteko I Triatloia	C. Atlético San Sebastián
14	Hondartza Tour 2010	C. Atlético San Sebastián
15	Mendizaletasuna	C. Vasco de Camping
16	Etorkinen arteko Futbol Txapelketa	C.D. Juventudes de América
17	IV. Kontxapuzoia	C.D.N.W.Tximistarri
18	LXVII. Kontxako Badian zeharkaldia	C.N.Easo
19	Egiako XXVIII Areto-Futbol Txapelketa	CD Aldapa
20	V. BehobiaTxiki Lasterketa	CD Fortuna
21	Zurriola Hondartza Esgrima Txapelketa herrikoa	CD Fortuna KE
22	IV Eskalada Txapelketa	CD Fortuna KE
23	III. "Haiziaren Orrazia"-ren zeharkaldia igerian	CD Fortuna KE
24	33. Getaria-Donostia zeharkaldia piraguaz	CD Fortuna KE
25	70. Mendi ibilaldia	CD Fortuna KE
26	Paseo Berriko 42. zeharkaldia igeri egiten	CD Fortuna KE
27	Herrerako XXX Herri krossa	CD Herrera
28	Jolas kiroleko Lehiaketa irekiak	CD Internacional
29	Kulturarteko VII. Areto Futbol Txapelketa	CEPA Ignacio Zuloaga
30	VIII. Udaberriko lasterketa	Donostiarrak Atletismo elkarte
31	Donostiako San Silvestre lasterketa	Donostiako Amara Areto Futbola Kirol elkarte
32	Kirol Egokitutakoaren astea	Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa
33	Egokitutako piraguismoa	Gipuzkoako Piraguismo Federazioa
34	Guztientzako hondartza boleibola	Gipuzkoako Boleibol Federazioa
35	Gipuzkoako Hondartza Boleiboleko I. Opena	Gipuzkoako Boleibol Federazioa
36	XIV. Oinezko Herri Lasterketa	Fly Group

⁵³ 2010ean KUPek emandako diru-laguntzak. Erabilgarri: www.donostia.org (Kontsulta: 2011ko abenduan).

37	Ziklotur DV Gipuzkoako Zikloturista itzulia	Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoa
38	Groseko VI Nazioarteko Xake Aktibo Lehiaketa irekia	Gros Xake Taldea
39	VI. Groseko Udaberri lehiaketa irekia	Gros Xake Taldea
40	Amstel 3 hondartzetako XXI. Krossa	Jakintza Kultur Elkarte
41	Zazpiko futbola	Martutene Kirol Elkarte
42	Bultzaide	RAIS Euskadi
43	XII. ATE Padel Txapelketa	Real Club de Tenis de San Sebastián
44	XII Wimbledon Padel Txapelketa	Real Club de Tenis de San Sebastián
45	Eguberriak Txapelketa	Real Club de Tenis de San Sebastián
46	VI. Padel Liga	Real Club de Tenis de San Sebastián
47	Pazko Txapelketa	Real Club de Tenis de San Sebastián
48	El Diario Vasco XIV. Itsas Lehiaketa	Real Club Náutico San Sebastián
49	XV Liga Cruceros	Real Club Náutico San Sebastián
50	Donostia-Pasaia-Donostia VIII Itsas Zeharkaldia	Real Club Náutico San Sebastián
51	12. Donostia hiria hondartzan futbolaren txapelketa	S.R.D.Sportmagic
52	Udako esku pilota jarduerak	Alde Zaharra Kirol Elkarte
53	Lagunarteko San Martzial Txapelketa	Altzatarra KE
54	San Martzial Paleta Txapelketa	Altzatarra KE
55	LVI Jolas Etxea Pilota Txapelketa	Añorga KKE
56	Esku eta Pala Pilota Txapelketa (Porrontxo)	Arrano Elkarte
57	XVIII. Trophée teink	Bera Bera R.T.
58	Batel estropadak	CD Loyolatarra
59	CD Loyolatarra Pilota Txapelketa	CD Loyolatarra
60	Herrera Ikaspilota IX. Txapelketa	Euskal Giroa
61	Donostiako estropadak	Donostia Kultura (Ayuntamiento de Donostia)
62	Olasagastiren oroimenezko Txapelketa	Lizardi Igeldo Kirol Elkarte
63	Gabonetako Txapelketa	Altzatarra KE
64	Antiguako 62. Pilota Txapelketa	Antiguako Pilotazaleok
65	Traineru estropadas	CD Loyolatarra
66	Juanito Álvarez Oroimenezko XVIII Nazioarteko Afizionatuen Zesta Punta Txapelketa	Donosti Gain SCR
67	U-18 Printzipe Kopa	CHH Txuri Urdin IHT
68	Donosti Bodyboard Air Show	Donosti Bodyboard Air Show
69	XLVII. Zumy Txirrindularitza Saria	Donosti Gain SCR
70	Donostia Hiria 16. tiro Olinpiar Nazioarteko Txapelketa	Donostiako Danbada Lagunak
71	Easo Kopa	Easo Saskibalo Taldea
72	Unibertsitateen arteko Espainiako txapelketa	EHU/UPV Gipuzkoa
73	Pistako Txirrindularitzako Espainiako Kopa	Euskadiko Txirrindularitza Federazioa
74	Espainiako pista estaliko junior txapelketa	Gipuzkoako Atletismo Federazioa
75	LV Donostiako nazioarteko krosa	Gipuzkoako Atletismo Federazioa
76	Donostia Hiria XXXIII. Nazioarteko Xake Txapelketa	Gipuzkoako Xake Federazioa
77	Donostia hiria XII. Rallya	Gipuzkoako Automobilismo Federazioa
78	Donostia hiria Emakumezkoen areto sofbol txapelketa	Gipuzkoako Beisbol eta sofbol Federazioa
79	XXVIII. Gabonetako Nazioarteko Txapelketa	Gipuzkoako Igeriketa Federazioa
80	Lau nazio xakeko nazioarteko txapelketa	Euskal Xake Federazioa
81	I. "Donostia hiria" Emakume eta gizonezkoen sofbol txapelketa	Euskal Beisbol eta sofbol federazioa
82	33. Donostiako Nazioarteko Maratoia	Fly Group
83	Groseko XX. Nazioarteko Xake Irekia	Gros Xake Taldea
84	Donosti Oakley Pro Junior neskek eta mutilak	Groseko Indarra Surf Taldea

85	Donostia Hiria Nazioarteko txapelketa	Judo Club San Sebastián
86	Behobia-Donostia helbarriak	Kemen A.D.
87	Behobia-Donostia	CD Fortuna KE
88	Donosti Cup	Kirolade
89	VI. Richard Oribe Igeriketa Txapelketa	Konporta KE
90	Donostiako Freestyle nazioartekoa	Motoclub deportivo Fly Group
91	XIII Rallye Vasco Navarro Histórico	Real Automóvil Club Vasco Navarro
92	Donostiako 86. Nazioarteko ATP Challenger Series Tennis lehiaketa	Real Club de Tennis de San Sebastián
93	Donostia Hiria XI. Nazioarteko Estropada. Vicente Munillaren oroimenez	Real Club de Tennis de San Sebastián
94	10. Donostiako Maratoi erdia	S.R.D.Sportmagic
95	Erregetako 81. nazioarteko krossa	SD Gimnástica de Ulía

ITURRIA: www.donostia.org

Aipatu 95 kirol jarduera bereziak 30 kirol modaliteri dagozkie, kirol egokitua eta kirol anitzeko jardueraz gain.


28 Taula. 2010ean antolatutako kirol jarduera bereziak modalitatearen arabera

MODALITATEA	JARDUERA K.
Aerobic-a	1
Xakea	5
Atletismoa	14
Automobilismoa	2
Saskibaloia	4
Bodyboard	1
Txirrindularitza	4
Kirol egokitua	2
Eskalada	1
Esgrima	1
Futbola	6
Areto futbola	1
Hockey -a	1
Judoa	1
Karatea	1
Kayaka	1
Mendizaletasuna	2
Motoziklismoa	1
Diziplina anitzekoa	3
Igeriketa	7
Nautika	3
Padela	3
Euskal Pilota	11
Piraguismoa	2
Arraunketa	4
Errugbia	1
Beisbola eta Sofbola	2
Surfa	1
Tenisa	3
Tiro Olimpikoa	1
Triatloia	2
Boleibola	3
GUZTIRA	95

ITURRIA: Norberak egin Udalaren www.donostia.org orrian lortutako informazioa erabilia.

Donostian egiten diren kirol jarduera berezietan gehien errepikatzen diren kirol modalitateak atletismoa (14 jarduera), euskal pilota (11 jarduera), igeriketa (7 jarduera) eta futbola (6 jarduera) dira.

16 Grafikoa. 2010eko kirol jarduera berezi kopurua modalitatearen arabera



ITURRIA: Norberak egina

Jarduera gehienak udaberrian antolatzen dira, martxo eta ekaina bitartean.

29 Taula. 2010ean antolatutako kirol jarduera bereziak hilabeteka


HILABETEA	JARDUERAK
Urtarrila	4
Otsaila	2
Martxoa	8
Apirila	6
Maiatza	9
Ekaina	12
Uztaila	8
Abuztua	11
Iraila	8
Urria	4
Azaroa	10
Abendua	10
GUZTIRA	92⁵⁴

ITURRIA: Norberak egina

Ekintza gehien antolatzen diren hilabetea ekaina da, 12 jarduera; jarraian kokatzen da abuztua, 10 jarduera. Hirugarren eta laugarren lekuan, berriz, azaroa eta abendua daude; hilabete bakoitzean 10 ekintza antolatzen dira.

⁵⁴ Ezin izan da hiru jarduera berezi egin ziren hilabetea ezagutu.

17 Grafikoa. 2010eko kirol jarduera berezi kopurua hilabeteka



ITURRIA: Norberak egina 2010ean emandako diru-laguntzen gainean Kiroletarako Udal Patronatuak dituen datuak erabilia. Erabilgarri:
www.donostia.org/orrian

Emakumeen parte hartzea kirol jarduera berezietan

- ✓ *“Nik ezagutzen ditudan bakarrak distantzia ertaineko atletismo lasterketak dira eta haietan emakumeen parte-hartzea handitzen ari dela ikusten da. Politika positibo bat epe erdi eta luzera begira egiten denean lortu daitezke gauzak. Gure kasuan jarduera nagusia Behobia da. Bertan beste jarduera eta ekintza batzuetan inbertitu dezakegun dirua ateratzen dugu eta gero eta kontzientzia handiagoa dago egiten dugun guztian berdintasuna bilatzeko”.*

Igeriketa zeharkaldietan emakumeen parte-hartze txikiagoa

- ✓ *“Distantziagatik ez da. Nik uste dut zeharkaldien distantziak emakumeentzat eginak badaudela. Beste kontu bat emakumearen entrenamendua da, gizonarena baino %15 gehiago izan behar du eta intentsitatea %30 baxuagoa. Indoor igeriketan*

gutxienez, distantziarik luzeena 800 metrotakoa da emakumeentzat eta 1.500 gizonezkoentzat”.

- ✓ *“Zeharkaldiak antolatzeko orduan gizonak beti lehenengo irteten dira eta gero emakumeak. Ez dakit hori irteera emateko modurik egokiena den”.*
- ✓ *“Emakumeak, igeriketa lehenago utzi dutenez, bere egoera fisikoa okerragoa da, beraz, distantzia berdinak eginaraztea zertxobait desberdina da. Bere bizitza guztian igerian egin duen mutil batentzat eta azken hamabi urteetan igerian egin ez duen neska batentzat ez da gauza bera. Zeharkaldien politena norberak bere lasterketa egiten duela da”.*
- ✓ *“Zeharkaldietan emakumeen parte hartzea %5ekoa da gutxi gorabehera”.*
- ✓ *“Sarietan berdinak dira. Zeharkaldietan batz besteko adina handiagoa da helduen boom modukoa izan da, parte hartzea asko ari da handitzen”.*
- ✓ *“Helburuagatik bakarrik parte hartu izan dut beti jardueretan. Korrika hasi nintzen, baina jarduera batera iristeko konpromisoagatik. Atletismoko jardueretan ez dut inolako arazorik izan, baina federazioaren igeri zeharkaldietan nik uste dut ez dagoela inolako aukerarik distantzietan”.*

Lilaton

- ✓ *“Lasterketa honekin kasualitatez hasi ginen. Orain 23 urte emakumeen egoera desberdina zen. Lehen Lilaton lasterketa Emakumeen Asanbladako emakume talde batek bultzatu eta antolatu zuen. Zerbait desberdina egin nahi izan genuen eta norbaitek Eskozian edo Irlandan pareko zerbait ikusi zuen eta aipatu egin zigun. Kalera irteteko modu bat zen eta pentsatzen hasi ginen zer eduki eman behar genion. Emakumearen banderarekin gurea eskatzea baino, kirolarekin erlazionatzea politagoa izango zela pentsatu genuen”.*

- ✓ *“Mezu erraza zen, ez zen emakumerik korrika kalean ikusten, pentsaezina zen. Nik uste dut bitan atera naizela korrika egitera eta portuan pasatzen ari nintzela entzundakoak ez ditut berriz entzun nahi izan. Ideia honekin hasita, hiriaren erdialdean egin nahi genuen korri ikusgarria izateko. Helburua zen lasterketa txiki bat egitea entrenamendu jarraiturik ez duen jendea ere atera zedin. Lehen lasterketan 130 lagun ingurua atera ziren”.*
- ✓ *“Ordutik aurrera erabaki genuen jarraitu egin behar genuela. Urtetan zehar fase asko izan ditu, baina parte-hartzean izan den handitzea ikaragarria da. Kritika asko izan ditu, oztopo batzuk, baina izan du sostengua Udalaren partetik; izan ere, Udalak ez baligu bahimenik eman errepidea erabiltzeko ez zen lasterketarik izango. Emakunde eta Udala oinarrizkoak izan ziren Lilaton antolatzeko. Baina bagenekien aurrera eginez gero, handia zela emakumea kirolean ikustarazteko. Urtero zerbait egin nahi izan dugu, bitarteko gutxirekin baina ilusio handiarekin. Lasterketa horietako batean ezagutu genuen Azpeitiko kirol teknikaria. Etorri zitzaigun eta esan zigun herri berdinetik etorri ziren hamar lagunak ezagutzen gintuztela eta interesgarria izango zela elkarrekin entrenatzea”.*

Emakumeen parte-hartzea indartzeko ekintza zehatzak

- ✓ *“Jarduerei dagokionez, gehien ezagutzen dena Behobia da. Hiru denboraldi daramatzagu eta laugarrenera doa, emakumeen parte hartzea indartzen. Ez da lasterketa bere horretan, bilatzen duguna ez da parte-hartzea handitzea, ez baitaukagu beharrik. Kanpora irten gara, gauzak ikusi ditugu, antzeko ekimenetako parte-hartzea, eta erreferentziatzat hartu dugu, esaterako, Götterborgeko maratoi erdia Europako handiena. Han gizon eta emakumeen parte-hartzea parekoa da. Gustatzen zaigu lan egiteko duten modua. Denbora asko daramagu emakumeentzat dohaineko entrenamenduak antolatzen. Pixkanaka joan gara eta mugitu gara Tolosan, Erreterian eta pixkanaka gune berriak ari gara sortze, Hondarribian esaterako. Jende askok eman du izena eta badirudi gora doala. Azken batean emakume hauek gure jardueretan eta beste askotan izena ematen ari dira”.*

- ✓ *“Astean bi entrenamendurengatik nahikoa diru apala ordaintzen zaien entrenatzaileak badira. Nahi duenak ematen du izena. Horrela, kirola gimnasioan egin beharrean, kalera irten eta korri egin dezaten laguntzen diegu kontrolarekin.*
- ✓ *“Entrenatu egiten dute eta gero proban parte hartu. Ez da Behobian irteten diren emakumeei begira antolatzen, korri egin nahi duen edozein emakumek parte hartu dezake”.*
- ✓ *“Eskaintza Fortunako web orritik egiten dugu. Izena eman behar dute, eurekin komunikatu ahal izateko datuak eta irailean-urrian eurekin kontaktuan jartzen gara. Leku batzuetan jada hiru denboraldi daramatzate. Aurten biathloian taldekako sari bat eman dugu; elkarrekin entrenatzen dute, kamiseta berdinarekin irteten dira ¿zergatik ez eman saria taldeari? Honekin ez dugu kluba edo taldea ikustarazi nahi, baizik eta bakarka nahiz taldeka kirola egitera animatu nahi ditugu. Talde asko osatu dira eta gehiago osatzen ari dira, gakoa herri bakoitzean mugimendu hau mugiaraziko duen pertsona aurkitzea da”.*
- ✓ *“Ikusten ari gara distantzia motzetan, 5,7 eta 10 km, asko handitu dela emakumeen parte-hartzea, baina, handitzen ari bada ere, oraindik maratoni erdian ez du lasterketa motzetan adina egin. Azpeitian hasi ginen, kiroltako teknikariak animatu gintuen eta zortea izan dugu. Udalaren laguntzat asko errazten du dena”.*
- ✓ *“Emakumeentzat jarduera bereziak eginez parte hartzea handitzea lortzen da, baina oraindik egiteko asko dago”.*
- ✓ *“Autoestimua asko handitzen zaie, talde batean sentitzen dira, karrera batera doazelako bidaiatzera animatzen ditu. Edozeinentzat eredu bat izan daitezke pertsona normalak dira eta. Ez dira ikusten kirolari bezala, euren denbora librean kirola egiten duten pertsona normalak bezala baizik. Jarraituko dituzten ereduak falta zaizkie”.*
- ✓ *“Gipuzkoan kirol jarduera asko dago. Jardueren informazioa ematen duten hiru web orri daude. Sare sozialak, blog-ak, web orriak... erabili beharko genituzke.*

Komunikazioa azkartasuna ikaragarria da, eta ikusten dugu gazte asko etortzen dela”.

4. Ondorioak

Donostiako Udalaren kirol politikak helburu du herritarrek bizitzako etapa bakoitzean kirol ibilbidea izan dezaten eskaintza egitea. Hori dela eta, udal mailako kirol arloan etengabeko hobekuntzak egiten ari dira. Hala ere, ikerketa honek Udaleko kirol politika arloan aztertzea merezi duten zenbait behar agerian utzi ditu. Modu horretan hirian leku hartzen duen kirol aktibitateak genero perspektiba modu zeharkakoan barneratu dezan.

Jarraian, Donostiako kirol arloko eremu zehatzetan egin den diagnosian ateratako ondorio nagusiak zerrendatu dira.

Kiroletako Udal Patronatua

KUPeko langileen estruktura 81 pertsonen osatzen dute, 56 emakumek eta 25 gizonek. Hala ere, emakumeak Patronatuko langileen artean soilik daude ordezkaturik, ez dago emakume bakar bat erakunde honen Artezte Kontseiluan. KUPek Kiroletako Aholku Batzordea duenez, emakumeen parte-hartzea sustatu beharko luke organo honetan, Donostiako kirol eremuko arlo ezberdinak ordezkatzeko dituzten emakume eta gizonen parte-hartze orekatua lortzeko.

Hiriak aukera ugari eskaintzen ditu bai kirol instalazioei dagokionez, bai aire libreko eremuei dagokionez ere, eta dinamiketan parte hartu duten pertsonen modu positiboan baloratu dituzte. Hala ere, zenbait hiri eremu eta kirol erabilerarako natur inguruetan (Zubiaurre Pasealekuan, Mirakruz Gainean, Ulia...) zenbait egokitze lan egin behar dira, argizatzea, irisgarritasuna eta zerbitzuak hobetzeko.

Diru-laguntza politikei helduta, nahiz eta egungo oinarrietan berdintasuna sustatzeko ekintza positiboak badiren, komenigarria litzateke KUPek hiru diru-laguntza eremuetan (eskola kirola, klubuen estruktura eta kirol jarduera bereziak) berdintasun irizpide berriak sartzeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18 4/2005 legean eskatzen direnak betetzeko. Oinarrietan lehenetsunez sartu behar dira, besteak beste: eskola kiroleko monitoreen hezkidetzak;

berdintasuna sustatzeko egiten diren ekintzen balorazioa; emandako kopuruaren genero inpaktua, gizonen eta emakumeen artean baliabide material eta pertsonalak banatzea; eta komunikazio ez sexista.

Nabarmentzeko da KUPek egiten duen ahalegina dokumentazioan lengoaia eta imajinak zaintzeko; hala ere, beharrezkoa da bere web orrian, zabalpenerako liburuxketan, dokumentuetan... baliatzen diren lengoaia eta imajinak berraztertzea eta komunikaziorako irizpide bateratuak ezartzea.

Partaidetza kirola

Donostiako herritarren %24,38k Donostia Kirola abonua du (45.395 abonua); haietatik %45 emakumeenak dira eta %55 gizonenak.

Sexu bietan abonua gehien pilatzen den adin tartea 41 eta 50 urte artekoa da. Sexu bietan abonua gehien dituen bigarren taldea, berriz, 31 eta 40 urte artekoa da. Gizonen abonua kopurua emakumeena baino handiago da adin tarte guztietan, 71 eta 80 urte arteko tartea salbu.

Gizonen eta emakumeen abonua kopuruaren alderik handiena 21 eta 30 urte arteko adin tartean dago. Adin tarte honetan abonua kopurua murriztu egiten da, batez ere, emakumeen artean; 31 urtetik aurrera sexu bietan berriz ere abonua kopuruak gora egiten du.

KUPek antolatutako 75 kirol ekintzetan parte hartzeko aukera ematen du. 2010/2011 kanpaina orotara 15.011 pertsonak parte hartu zuten ikastaroetan; %72,5 emakumezkoak ziren eta %27,5 gizonetzkoak. Emakumeen parte hartzea ekintzetan nabarmen handiagoa da gizonenarekin alderatuta.

Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoan (2007-2013) zehaztutako ildoak jarraiki, komenigarria litzateke emakumeen –batez ere neska gazteen– beharrak ezagutzea eskaintza haietara egokitzeko.

Donostian pertsona askok egiten dute ariketa fisikoa KUPen egituretatik kanpo. Jarduera nagusiak ibiltzea, korrika egitea, bizikletan edo patinetan ibiltzea, surfa egitea... dira.

Eskola kirola

2009/2010 kanpainan Donostiako eskola kirola programan 5.796 hurrek parte hartu zuten, 3.221 mutilek (%56) eta 2.575 neskek (%44). Orokorrean, mutilen parte-hartzea neskena baino handiago da kategoria guztietan, Infantil kategoria salbu. Neska gehien dituen kirol kategoria Alebin kategoria da. Mutilen kasuan parte-hartze ehuneko handiena benjamin kategorian dago.

Eskola kirolaren inguruko dinamikan gehien aipatu den kontuetako bat da prestatuta dauden monitoreak izatea da. Oinarrizko jo da haiek egokiak diren pedagogia tresnak baliatuta saioak prestatzea eta kirolaren baloreak eta talde lanaren, elkarlanaren eta errespetuaren garrantzia ikasleei transmititzen jakitea.

Neska gazteen kirol uztea ere proiektu guztian zehar presente egon da. Donostiako eskola kirolaren garapenaz arduratzen diren pertsonak beharrezko jo dute kirol uztea eragozteko edo atzeratzeko neurriak hartzea, bai ikastetxeen partetik, nahiz klubaren eta Udalaren aldetik.

Ikerketa honetan parte hartu duten pertsonak oinarrizko jo dute, halaber, gurasoak kontzientziatzea euren seme-alaben, bien, kirol esperientziak duen garrantziaren inguruan eta hura baloratu, lagundu eta haren inguruan interesa agertu dezaten lortzea.

Azkenik, aipatu duten beste arloa gurasoek eskola kiroleko lehiaketetan jarrera desegokiak izan ditzaten eragozteko beharra izan da.

Errendimenduko kirola

Donostian orotara 210 kirol klub daude eta 45 kirol modalitate egiteko aukera eskaintzen dute. 22.904 lizentzia federatu daude hiriburuan, haietatik 5.293 (%23) emakumeenak dira eta 17.6011 (%77) gizonenak. Emakumeek gehien egiten dituzten kirol-modalitateak mendia eta eskalada, golfa, saskibaloia eta futbola dira; gizonen kasuan gehien egiten diren kirol modalitateak ehiza, golfa, futbola eta txirrindularitza dira. Ez da emakumezko lizentziarik ehiza, karatea, pilota, beisbol eta sofbol, bela, areto futbola, boxeoa, automobilismoa, badmintona eta borroka eta samboan. Mutilen lizentziarik ez duen kirol modalitate bakarra gimnasia da.

Dinamiketan parte hartu duten pertsonen iritziak, emakume gutxi dago kirol federatuan eskola adinean, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako aldaketan, kirol uztea gertatzen delako. Euren ustez, hezkuntza baloreek (sexu bakoitzari egozten zaizkien estereotipo eta rolak) kirol praktikarako jarrera baldintzatzen dute; hala ere, uste dute badirela, halaber, eragina duten berezko faktoreak. Aipatu dituztenen artean dago, esaterako, gurasoen sostengu falta. Haien errazago onartzen dute emakumeek kirola uztea ikasketengatik.

Era berean, klubek emakumeen kirolari arreta gutxiago eskaintzen dietela azaldu dute eta hori, euren esanetan, nabarmentzen da emakumeei baliabide material eta pertsonal gutxiago eskaintzen zaizkielako. Kirolariek adierazi dute ekipamendu, ordutegi eta instalazio okerrenak esleitzen dizkietela eta arazoak dituztela entrenatzailea aurkitzeko garaian.

Goi Mailako kirola

Kirolgi Fundazioen beka jasotzen duten taldeen %43 Donostiakoa da. Gipuzkoan babesten dituen 32 taldeetatik 14 donostiarrak dira, 6 mutilenak, 6 emakumeenak eta 2 mistoak.

Goi mailako emakumezko kirolariak Donostiako Udalaren eskumenen baitan aipatu dituzten arazoetako batzuk honakoak dira: euren kirol kategoriak eskatzen duen mailari dagozkien lehiaketa eta entrenamenduak egiteko kirol eremua erabiltzeko zailtasunak; eta ikastetxeetan, komunikabideetan, sari banaketa ekitaldietan eta maila bereko kirol ekitaldietan goi mailako kirolariak ikustarazteko beharra.

Profesionalizazio falta, ezegonkortasun ekonomikoa eta kirol aktibitatea ikasketekin bateratzeko zailtasunarekin zerikusia dute nabarmendu dituzten beste arloek.

Kirol Jarduera bereziak

Donostiako Udalak 2010ean 30 kirol modalitate barne hartzen zituzten 95 kirol jarduera bereziak diruz lagundu zituen. Gehien errepikatu ziren kirol modalitateak atletismoa (14 jarduera), euskal pilota (11 jarduera), igeriketa (7 jarduera) eta futbola (6 jarduera) dira.

Jarduera gehienak udaberrian antolatzen dira, martxoa eta ekaina bitartean. Ekintza gehien antolatzen diren hilabetea ekaina da, 12 jarduera; jarraian kokatzen da abuztua, 10 jarduera. Hirugarren eta laugarren lekuan, berriz, azaroa eta Abendua daude; hilabete bakoitzean 10 ekintza antolatzen dira.

Talde dinamiketan parte hartu duten pertsonen ustez, azken urteetan asko handitu da emakumeen parte hartzea kirol jarduera berezietan; hala ere, oinarrizko jo dute jarduera espezifikoak –antolatutako entrenamenduak- egitea kirol jardueretan emakumeen parte hartzea sustatzeko, batez ere, aire librean egiten den aktibitate fisikoarekin zerikusia dutenetan. Era

berean, teknologia berrien bidez emakumeak erakartzeko kanpainak egitea beharrezko dela uste dute.

Zenbait kasutan lehiaketan distantziaren denbora egokitzapenak egitea –edo ibilbide motzagoak egitea- komenigarria dela uste dute emakumeen eta aktibitate fisikoa egitea ohituak ez dauden pertsonen parte-hartzea indartzeko.

Dinamikan parte hartu duten pertsonen ikuspuntutik, kirol erabilpena duten hiriko eremuek eta eremu naturalek argiztapen egokia izatea oinarritzkoa da ibiltzera edo korrika egitea irteten diren emakumeek duten segurtasun sententzia bermatzeko.

Azkenik, Donostian egiten diren kirol jarduera berezien urteko egutegia egiteko proposamena egin dute, Donostia Turismoak urtero editatzen duen modukoa.

5. Bibliografia

B.O.P.V.: Emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko, 4/200 5 Legea, II. Kapituloa, 25.Artikulua-Kultur Jarduerak, 2, 3 eta 4 atalak.2005eko martxoaren 2an argitaratua. 42. zenb.

EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO (2003). *Plan Vasco del Deporte 2003-2007*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco.

Donostiako Udaleko dokumentuak⁵⁵

Kirol Jarduerari diru-laguntzak emateko oinarri orokor eta espezifikokoak

Eskola Kirola Donostian: Gaur egungo egoera eta helburuak.

Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideak.

Donostiako Udaleko 2011ko Udal Aurrekontuak. 3. Liburukia.

Donostiako Udaleko kirolaren aholku-batzordearen araudia. Gipuzkoako Boletín Oficiala (G.B.O), 2008ko ekainaren 30, 124 zenb.

Kirolerako Udal Patronatuaren zerbitzu eta kirol instalazioen araudia.

Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoa (2007-2013)

⁵⁵ Eskola kiroleko dokumentua izan ezik, gainerakok Donostia Udaleko web orrian kontsultatu dira. www.donostia.org.

Kontsultatutako web orriak

www.csd.gob.es

www.donostia.org

www.basqueteam.com

www.emakunde.euskadi.net

www.gipuzkoa.net

www.kirolbegi.net

www.kirolgi.org

www.kulturaejgv.euskadi.net

www.loiolatarra.org

www.rctss.com

www.sansebastianturismo.com

I ERANSKINA

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren Diru-laguntza Oinarrien analisia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad

DONOSTIAKO KIROLETAKO UDAL PATRONATUAREN DIRU LAGUNTZEN OINARRIEN ANALISIA

2011ko urria



Aurkibidea

1. Sarrera

2. Kiroletako Udal Patronatuaren diru-laguntza ildoak
 - 2.1 I Eranskina
 - 2.2 II Eranskina
 - 2.3 III Eranskina
 - 2.4 Lengoia eta irudiak diru-laguntza oinarrietan

3. Proposamenak



1. Sarrera

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak bere helburu nagusia tokiko Kirol Sistemaren funtzionamendu eraginkorrerako lider izatea dela dio, horrela, kalitatezko zerbitzu publikoaren bidez, donostiar orok kirola egiteko aukera duela ziurtatzeko⁵⁶. Helburua hau lau ardatzetan oinarritzen da: kirol praktikaren oinarri soziala handitzea, Donostia hiria kirol eremu bilakatzea, Donostiako kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea handitzea eta kirol eskaintza publikoaren autofinantzaketa maila handitzea⁵⁷.

Kiroletako Udal Patronatuaren autofinantzaketa maila %60,94koa da. Helburua 2013rako %62raino handitzea da, Donostiako 2007-2013 Kirolaren Plan Estrategikoarekin bat⁵⁸.

Dirulaguntzen bidez eman den diruarekin entitate txikien bitartez kirola sustatzea da helburua. Laguntzak arautzen dituen arautegia urtero berritzen da *Donostiako 2007-2013 Kirolaren Plan Estrategikoan* zehaztutako helburuetara egokitzeko. Planak hiru diru-laguntza ildo ditu: Kluben bidez kirol aktibitatea bultzatu eta garatzea; eskola kirola, eta jarduera bereziak⁵⁹. Era berean, dirulaguntzak emateko zehazten dituzten irizpideek emakumeak eta bertako kirolak barneratzea bilatzen dituzte, garrantza bereziko lerro estrategiko gisa⁶⁰.

⁵⁶ Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontua. Donostiako Udaleko 2011ko Udal Aurrekontuetako 3. Liburukia. Eskuragai www.donostia.org orrian (kontsulta 2011ko abenduan)

⁵⁷ Ibid 56.

⁵⁸ Donostiako 2007-2013 Kirolaren Plan Estrategikoa. Erabilgarri: www.donostia.org orrian (Kontsulta 2011ko abenduan)

⁵⁹ Ibid 56.

⁶⁰ Ibid 56. 4.Kapitulua. Diru-laguntzaen sustapenerako gastuak. Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontua, 44. orr.

2. Kiroletako Udal Patronatuaren diru-laguntza lerroen analisisia

Kirol arloko laguntza ekonomikoak Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak helburu horrekin ematen duen aurrekontu-atalaren⁶¹ bitartez ematen dira. Era berean, laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen⁶², Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorraren⁶³, 38/2033 Legearen araudiaren 887/2006 Errege-Dekretua⁶⁴ eta 2007-2013 Kirolaren Plan Estrategikoak proposatutako jarduera lerroetan ezartzen diren irizpideen arabera ematen dira.

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontuari dagozkion kiroltako diru laguntzen emakida arautzeko oinarriak⁶⁵ hiru eranskinetan garatzen dira. Haietako bakoitzean diru-laguntzen oinarri bereziak eta diru-laguntza ildoetako bakoitzaren balorazio irizpideak zehazten dira. Jarraian eranskin bakoitza zein diru-laguntza lerro zehatzi dagokion zehaztu da:

1 Taula. Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren diru-laguntza oinarrien eranskinen laburpena.

ERANSKINA	EDUKIA
I	Eskola kirola kudeatzeko eta bermatzeko egiturak garatzea
II	Klubuen eta kirol elkarten egiturak garatzea
III	Kirol jarduera bereziak antolatzeko diru laguntzak

ITURRIA: Norberak egina

⁶¹ Donostiako 2011ko ekonomia eta finantza txostena. Erabilgarri www.donostia.org.

⁶² Kirola interes publikoko jarduera gisa ezagutzen da eta bakoitzaren eskuduntza eremuan Administrazio Publikoek sustatu beharreko helburu da. Helburu hori lortze bidean, entitate desberdinen lana sustatzeko laguntza sistema bat izan dezakete.

⁶³ Sektore publikoaren finantza jardueraren zati handi bat diru-laguntzen bitartez bideratzen da. Helburua entitate publiko eta pribatuen eta pertsonen behar sozial eta ekonomikoei erantzuna ematea da finantza-laguntzen bitartez.

⁶⁴ Garapen araudi bat onartzea, batez ere, diru-laguntzen kudeaketa eraginkorragoa dakarten soluzio orokorrak aurreratu daitezkeen arloetan, eta araudi bat egituratzea.

⁶⁵ 2011. Urteari dagokion Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren Aurrekontuaren konturako diru-laguntzak ematea arautzeko oinarriak. Erabilgarri: www.donostia.org orrian (Kontsulta: 2011ko abenduan)

2.1 I Eranskina. Eskola kirola kudeatzeko eta bermatzek egiturak garatzea.

Onuradunen **betebeharrak-4 ataleko**, “d” **azpiatalean** jaso da beharrezkoa dela bermatzea langileen gaitasun egokia, bai kirolaren eta teknikaren aldetik, bai eskola kirolari loturiko beste hezkuntza alderdi batzuetan. Eskola kiroleko saioak egiteaz arduratzen diren pertsona teknikoak neska eta mutilen berdintasun gaietan prestatu daitezzen, komenigarria litzateke Patronatuak aipatzen dituen hezkuntza alderdiak zehaztea; bai eta hezkidetzaren garrantzia sartzea, besteak beste, pertsona hauek neska mutilek aktibitatearekin duten gozamen eta atxikidura mailan, kirolaren jarraipenean eta sexu estereotipo eta rolen erreprodukzioan duten eraginagatik.

Atal bereko “j” **azpiatalean** zehaztu da ikastetxeek ahalbideratu beharko dutela ikasleak kirol klubetan sartu ahal izatea, kirol jardueraren jarraipena bermatzea aldera eskolatze aldia bukatutakoan errendimenduko zein parte-hartze helburuekin. Garrantzitsua da Kiroletako Udal Patronatuak kirol klub guztiei eskatzea eskola kirolaren programan nesken zein mutilen praktikaren jarraipena bermatuko duen eskaintza egiteko. Kasu batzuetan, zenbait klubek ez die bere modalitatea emakumeei eskaintzen, eskari gabezia dagoela edota nesken eskariari erantzuteko zailtasun ekonomikoak –eta bestelako baliabideenak- dituztela argudiatuta. Ahalmen falta hau justifikatua dagoen kasuetan, klubak berak bermatu beharko litzuke kalitatezko alternatibak aipatutako modalitatean jarraitu nahi duten neskentzat. Hala ere, komenigarria da Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak alderdi hau kontuan hartzea diru-laguntzak emateko garaian.

5 atalean-Eskaerak eta aurkezteko epea, “e” azpiatalean aurreko ikasturteko memoria aurkeztu behar dela jaso da. Bertan diru-laguntza emateko aztertu beharreko atal guztiek azaldu behar dute:

- Lehiaketa jardueretan parte-hartzea.
- Kirol klubekin sinatutako hitzarmenak
- Teknikoen tituluak, izenak eta abizenak.
- Sustapen jardueretan parte-hartzea.
- Norbere instalazioak uztea.

Kirolean berdintasuna garatzearen ikuspegi teorikotik, bai eta “*Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko Jarraibidea*”⁶⁶ betetzeko, KUPek erakunde onuradunei lehiaketa eta sustapen jardueretan parte hartzen duten pertsonen adina eta sexua zehazteko eskatu beharko luke; baita aktibitate bakoitzera bideratzen den zenbatekoa –kontzeptuka bereiztuta-. Errekurtsio ekonomikoen banaketaz gain, Kiroletako Udal Patronatuak neska eta mutilen egokitutako monitoreen prestakuntza ezagutu beharko luke, bai eta ekintzetarako ordutegi eta instalazioen banaketa ere, dauden baliabideen banaketan genero desberdintasuna ekiditeko.

Bestalde, egitura berezi eta egonkorak sortzeko diru-laguntzen irizpideei dagokien **6.1 atalean**, ikastetxeetan ekintza positibo bat jaso da. Haren arabera, 1,10rekin biderkatutako da ikastetxeko organu gorenak onartutako zentroaren Kirol Proiektua duten ikastetxeen emaitza. Neskek eskola kirolean parte-hartze baxuagoa dutela eta, batez ere, haien kirol uztea kontuan hartuta – Patronatuko langile teknikoei nahiz ikastetxeetan kirol eskaintza koordinatzen duten arduradunei ardura eragiten die gaiak-, egokia litzateke ikastetxeko kirol proiektua izateari balio handiagoa ematea, bertan, eskaintako programan nesken parte-hartzea sustatzeko ekintzak zehazten dituen atal bat azal dadin exijituta.

2.2 II Eranskina. Kluben eta kirol elkarten egiturak garatzea

3 alatean-Erakunde onuradunak, exijitutako lizentzia gutxieneko kopuruari (25 kolektiboan eta 15 banakakoan) dagokion “**e**” **azpiatalean**, azaldutako baldintza ez dela eskatuko zenbait kasutan adierazi da, besteak beste, emakumezkoen kirolean diharduten klubetako kasuan. Egoki ikusi da neurri positibo hau; izan ere, emakumezkoen taldeek maiz arazo gehiago dituzte taldeak osatzeko lizentzia kopuru baxuagoa dutelako.

⁶⁶ Donostiako Berdintasun Bulegoak emandako fitxa, diruz lagundutako proiektu eta jardueretan naiz diru-laguntzen justifikazioan genero perspektiba nola txertatzen den baloratzekeo.

Era berean, **5 atalean**, federazio lizentzia bakoitzari dagozkion **puntuazioen eta baremoen 1 azpiatalean**, emakumezkoen lizentziak 1,5ekin biderkatuko direla zehatzen da, mendia, golfa, ehiza eta arrantza kasuetan salbu.

Azkenik, **5 atalean**, klubaren kirol atal bakoitzaren **balorazio eta puntuazio adierazleei dagokion 4 azpiatalak**, klubaren atal bakoitzari, bigarrenetik aurrera 5 puntu emango zaizkiola zehaztu da, eta 10 atalean emakume eta gizon kirolariak badaude. Ekintza positibotzat hartu da hau ere, kontuan hartuta I Eranskinean egiten den proposamena. Bertan garrantzitsutzat jo da klubek kalitatezko eskaintza egitea gizonentzat zein emakumeentzat.

2, 3 eta 4 Taulak. II Eranskineko diru-laguntza oinarrietan aztertutako atalen laburpena.

Atala	3. Erakunde onuradunak
Azpiatala	e) Klubaren gutxieneko lizentziak
Edukia	“Talde kirolei dagokionez, gutxienez, federaturiko 25 lizentzia izatea, eta banakako kirolei dagokionez, berriz, gutxienez, federaturiko 15 lizentzia izatea kirol atalen”. Ez da aplikatuko: - Klubak emakumezkoen kirolean jarduten badu.
Oharrak	Emakumezko klubentzat ekintza positiboa egiten da.
Puntuazioa	Ez da zehazten

Atala	5. Diru laguntzen zenbatekoa zehazteko baremoa
Azpiatala	1. Kirol lizentzia bakoitzeko (goi mailako kirol lizentziak salbu)
Edukia	“Emakumezkoen lizentzia federatuen kasuan 1,5ez biderkatuko dira (mendi, golf, ehiza eta arrantza lizentziak salbu)”.
Oharrak	Ekintza positiboa da, emakumezkoen lizentziak gizonezkoen lizentziak baino koefiziente handiago batekin biderkatzen baitira
Puntuazioa	Zenbatekoa 1,5 koefizientearekin biderkatuko da.

Atala	5. Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko baremoa
Azpiatala	4. Klubeko kirol bakoitzeko, bigarrenetik aurrera.
Edukia	“...5 puntu atal bakoitzeko, eta 10 puntu atalean emakumezko eta gizonezko kirolariek parte hartzen badute...”
Oharrak	Ekintza positiboa egiten da, puntu gehiago ematen

	baitzaizkie gizonak eta emakumeek osatutako taldeei.
Puntuazioa	5 puntu lizentzia bakoitzeko eta 10 klubak emakumezko eta gizonzkoen lizentziak baditu

ITURRIA: Norberak egina

I Eranskinean bezala, Donostiako Udalak ezarritako zeharkako neurriak⁶⁷ abian jartze aldera, egokia litzateke KUPek erakunde onuradunei genero inpaktuaren araberrako gastuen zerrrenda zehatza eskatzea. Horrela emakume eta gizon kirolariek egin den gastua ezagutu eta baliabideen banaketa desberdina⁶⁸ eragotziko litzateke.

Era berean, KUPek entitateek maila guztietan (kirolariak, teknikoak, arbitroak, zuzendaritzako kideak) emakumeen parte-hartzea sustatzeko garatzen dituzten proiektu eta jarduerak ezagutu beharko litzuzke eta, behar izanez gero, baloratu.

2.3 III Eranskina. Kirola jarduera bereziak antolatze diru laguntzak

III Eranskineko **4 atalean-eskabideak eta aurkezteko epeak**, “f” azpiatalean, jaso da jarduerako gastu eta diru sarreren aurrekontua aurkeztu beharko dela. *Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdina izateko zeharreko ekintzak ezartzeko Jarraibideak*⁶⁹ kontuan hartuta, Donostiako Kirol Patronatuak ezagutu beharko litzuzke laguntzaren onuradunak diren gizon eta emakumeen kopurura eta bakoitzaren parte-hartzea zein modutakoa izango den.

Jardueraren antolatzailea den erakundeak Udalari azaldu beharko dio kirolari –edo bere kasuan, ikusle gisa-, antolatzaile edo bolondres gisa parte hartuko duten emakume kopurua.

⁶⁷ Ibid 57.

⁶⁸ Esaterako, gizonen taldeak –maila altuago batean egon gabe edo bidaia luzeagoak egin gabe, ez eta justifikatu gabeko beste arrazoi batengatik- autobusean egitea bidaia, nesken taldeak auto partikularrean egiten dituen bitartean. Informazioa gehiago: EKFB (2011): “*Guía para la incorporación de la perspectiva de género en las federaciones deportivas vascas*”. Eskuragarri: http://euskalkirola.com/wp-content/pdf/Guia_igualdad_federaciones.pdf

⁶⁹ Ibid 57.

Era berean, atal bereko “j” **azpiatalean**, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Donostiako Udalaren Araudiko 25. artikuluan zehaztutako eran zainduko dela euskararen erabilera jaso da. Komenigarria litzateke Kiroletako Udal Patronatuak, arlo hau zaintzeaz gainera, eta aipatu berdintasunaren aldeko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideak betetze aldera, lengoaiaren eta irudien erabilera ez sexista baldintza gisa ezartzea. Arau hau diruz lagundutako kirol ekintzaren gaineko publizitate eta dokumentazio guztiak bermatu beharko luke.

Diru-laguntzen oinarrietan kasu honetan ere emakumeen aldeko ekintza positiboa egiten dela nabarmentzekoa da; izan ere, puntu gehiago ematen baitzaizkio kirol ekintza berezien kirol intereseko irizpideetan (**b.2 atala, dagokion federazioak probari onartzen dion maila**). Kasu honetan, 10 puntu ematen zaizkio Espainiako Txapelketa absolutuari -20, emakumezkoena bada- eta 5 puntu Espainiako Txapelketa absolutoko Sektore fasea bada -10, emakumezkoena bada).

2.4 Lengoiak eta irudiak Kiroletako Udal Patronatuaren Diru-laguntza Oinarrietan

Kiroletako Udal Patronatuaren diru-laguntzen oinarriek agerian uzten du erakunde honek lengoaiaren erabilera ez sexista egiteko egiten duen ahalegina. Hala ere, beharrezkoa da oinarrien idazketa berraztertzea, maskulino generikoaren eta lengoia erabiltzeko beste estrategia batzuen konbinazioa atzematen baita.



5 Taula. Kiroletako Udal Patronatuaren diru-laguntza oinarrietan erabilitako lengoia

DOKUMENTUA/TESTUA	ESTILOA	ADIBIDEAK
Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontuari dagozkion kiroleko diru laguntzen emakida arautzeko oinarriak 2011 ekitaldiari dagokiona.	Maskulino generikoa	El organizador, beneficiarios, los monitores, un representante, el coordinador, los técnicos, asociación de padres, los mismos, los escolares, los deportistas, los minusválidos,
	Barren erabilera	El/la, coordinador/a, monitor/a,
	Forma bikoitzak	Monitores y monitoras,

ITURRIA: Norberak egina

Kiroletako Udal Patronatuak diruz lagundutako erakundeek kirol jarduera bereziak antolatzeko baliatutako irudiei dagokionez, agerian geratu da emakumeen agerpena gizonena baino nabarmen baxuagoa dela.

1 irudia. Fundacion Barclays-en II Txapelketako kartela. 2009.



ITURRIA: www.donostia.org

2 irudia. 2011ko Behobia-San Sebastian lasterketaren kartela



ITURRIA: www.donostia.org

3 irudia. Donostiako Nazioarteko Triatloia-aren Kartela. 2010.



ITURRIA: www.loiolatarra.org

4 irudia. Padel ATE Torneoaren kartela. 2010.



con 1220 euros a repartir en premios más trofeos

XII TORNEO DE PADEL ATE ASESORES RCTSS
 del 6 al 11 de abril 2010

Mailak / Categorias:
 • Gizonezkoen eta Emakumezkoen 1. eta 2.
 • Masculino y femenino 1º y 2º

APLICACION NORMATIVA DEL C.V.B.

EPAILE NAGUSIA / JUEZ ARBITRO: Juan Luis de la Caba

CUADRO DE PREMIOS			
CATEGORIA	1º premio	2º premio	3º premio
GIZONEZKOEN	200,00	100,00	50,00
FEMENINOEN	150,00	75,00	37,50
EMAKUMEZKOEN	100,00	50,00	25,00
EMAKUMENEN	50,00	25,00	12,50

IZENA EMATEKO EPEA - APIRILAK 1, 20.00ak arte*
PLAZO DE INSCRIPCIÓN: Hasta el 1 de ABRIL a las 20,00 h.*
* Inscripciones online relativas de online

IZENA EMATEKO KUOTA / CUOTA DE INSCRIPCIÓN: 1,5 € *

IZEN-EMATEAK / INSCRIPCIÓN: en el siguiente email:
juanluis@rctss.com

ORDUTEGIAK / HORARIOS: Entre semana se jugará a partir de las 18:00 h.
 El fin de semana a partir de las 9:00 h.

La bola oficial será HEAD 

Con la inscripción se obsequiará con una sudadera conmemorativa




real club de tenis de san sebastián
 donostialako tenis elkarte erreala

ITURRIA: www.rctss.com/

Entitate antolatzaileek irudi anitzak, adin ezberdinetako gizon eta emakumeenak, sar ditzatela zaintzeaz gain, estereotipo tradizionalei aurre egiteko, komenigarria litzateke Kiroletako Udal Patronatuak arlo hau zaintzea, hirian egiten diren kirol jardueretan emakumeen nahiz gizonen parte-hartzea ikustarazten duten irudiak erabilia.

5 irudia. KUPek diruz lagundutako jardueren aurkezpena⁷⁰



Fuente: www.donostia.org

Lengoaia gure gizarteko komunikazio tresna nagusienetakoa da. Lengoaia erabilia errealitatea izendatu, interpretatu eta sinbolikoki eraikitzen dugu. Sistema dinamikoa da beraz, gizartea bezala gizarte taldeen beharretara egokitzeko garatzen dena. Prozesua progresiboa denez eta ez alde bakarrekoa, lengoaiaren erabilera aldez aurretik pentsatuta aldatzen badugu, munduaz dugun ikuspegia eta gizon eta emakumeen artean ezartzen diren harremanak aldatzen lagunduko du⁷¹.

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legearen IV Kapituluaren Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak, 18 artikuluko 4. atalean jaso da Euskal herri-aginteez ez dutela hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

⁷⁰ KUPen web orritik hartutako irudia. Web orrian jarduera jakitera ematen da Cross Amstel Tres Playas 2011 lasterketaren irudi batekin.

⁷¹ Guía para una comunicación igualitaria en el deporte. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, 2008
www.kultura.ejgv.euskadi.net

Beraz, lengoiaren erabilera androzentrikoa⁷² saihestea komenigarria da eta gomendagarria da maskulinoa modu generikoan ez erabiltzea, ez eta “hombres” hitza baliatzea gizonak nahiz emakumeak aipatzeko.

Proposamen batzuk:

El organizador	La organización
Los beneficiarios	Las personas beneficiarias
Los monitores	El monitorado
El representante	La persona representante
El coordinador	La persona coordinadora
Los técnicos	El cuerpo técnico

Ez da komeni femeninoa eta maskulinoa aldi berean askotan erabiltzea, lengoaia astuna eta errepikakorra eragiten duelako. Horregatik, femeninoaren eta maskulinoaren erabilera txandakatzea gomendatzen da.

Monitores y monitoras	Monitoras y monitores
Los chicos y chicas federados	Los chicos y las chicas federadas

Era berean, ez da komeni maskulinoa eta femeninoa sartzeko barrak gehiegi erabiltzea, batez ere, testu eta idatzi luzeetan; barrak dokumentu administratiboetan (formulario, fitxa, triptiko, eskaera inprimakiak...): la/el interesada/o, coordinador/a; monitor/a.

⁷² Lengoaia androzentrikoa: Gizona gauza guztien neurri gisa hartu eta maskulinoa erabiltzea edo sinestea emakumeak espresio unibertsaleko araua hausten duten salbuespen direla. Ana Mañeru (1991): “El género: ¿accidente gramatical o discriminación accidental?”. Erabilgarri: www.nahiko-emakunde.com



3. Diru laguntza oinarrien aldaketa proposamenak

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren diru-laguntzen oinarrien azterketak agerian utzi du kirol arloan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboak kontuan hartzen direla.

Neurri hauez gain, komenigarria litzateke, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Donostiako Udalak diru-laguntzen genero ikuspegia txertatzeko ezarritako zeharreko ekintzekin bat, Kiroletarako Udal patronatuak laguntzak eskatzen dituzten erakundeek berdintasun printzipioa errespetatzen dutela bermatzea. Erakunde hauek euren ekintzen kudeaketan ez dutela bereizkeriarik egiten bermatzeko, beharrezkoa litzateke neurriak hartzea baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak modu berdinean banatzen dituztela ziurtatzeko. Era berean, lengoaiaren eta irudien erabilera sexista baztertu beharko litzateke, emakumeen irudiak sartuz, besteak beste, diruz lagundutako ekintzen karteletan, Kiroletarako Udal Patronatuko web orriko edo diruz lagundutako entitateen albisteetan.

Lengoaiari dagokionean, egindako analisiak agerian utzi du Kiroletarako Udal Patronatuak diru-laguntzen oinarrietan maskulino generikoa saihesteko ahalegina egiten duela; hala ere, komenigarria litzateke irizpide bateratuak ezartzea, eta haien arabera, oinarrietan erabiltzen den lengoaia berraztertzea.

I, II eta III eranskinen oinarrien inguruko proposamenak

I Eranskina

- Eskola kiroleko teknikarien atalean begiraleak hezkidetzan formakuntza izatea baloratu, eskola kiroleko heziketa gaiekin zerikusia duten planteamenduetan.
- Eskola kiroleko programan parte hartu ahal izateko, klubei eskatzea sexu bientzat eskaintza federatua izatea.
- Entitateek aurkeztu behar duten kirol memorian, honako hauek sartzea:
 - o Lehiaketetako eta sustapen jardueretako parte hartzaile kopurua adina eta sexuaren arabera.
 - o Lehiaketetara eta sustapen aktibitateetara bideratzen den diru kopurua
 - o Neska-mutilen monitoreen titulazioa
 - o Jarduera bakoitzari egozten zaizkion ordutegi eta instalazioak.
- Zentroek kirol proiektua duten baloratzean, aipatu proiektuak emakumeen parte hartzea sustatzeko ekintzat jasoko dituen atal bat sartuko duela ezartzea.

II Eranskina

- Kontzeptuen eta kategoria eta sexuen araberako gastuen zerrenda zehatza eskatzea (aurrekontuaren genero inpaktua).
- Emakume eta gizonen berdintasuna egituran sustatzeko eta, batez ere, baliabide ekonomiko, material eta pertsonalen banaketan indar eginda, klubak egin dituen ekimenen gaineko informazioa eskatu.



III Eranskina

- Bai kirolari gisa edo bai ikusle, bolondres, kontratatutako langile, tekniko, arbitro eta antolatzaile gisa entitateei emakume eta gizonen parte hartzearen aurreikuspena egiteko eskatzea.
- Baldintza gisa eskatu berdintasunezko lengoaia eta gizon eta emakumeak agertzen diren irudi anitzak erabiltzea.

Lengoiaren eta irudien gaineko proposamenak

- Irizpide bateratuak ezartzea komunikazioan lengoaia erabiltzeko eta bere dokumentazioa aztertu eta zuzentzea.
- Entitateek bete beharko dituzten lengoiaren eta imajinen gaineko irizpideak ezarri. Haiek kirol arloko aniztasuna islatu behar dute, emakumeak ikustarazita eta estereotipatutako gizarte rolak saihestuko dituen irudia eskainita.

II ATALA: LAN ILDOAK

1 KUP-DONOSTIA KIROLA

1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatu KUPek azpikontrataturako enpresen kudeaketan

1.1.1 Emakume eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa eskatu (kontziliazioa, langileen lan-baldintzak, komunikazioa, etab.) enpresak azpikontratatzeko oinarrietan.

1.2 Emakumeen partaidetza sustatu Kiroleko Aholkularitza Batzordean

1.2.1 Donostiako kirol arloko atal ezberdinetako ordezkarietarako sexu bakoitzeko pertsona bat izendatzea eskatu.

1.3 Kirol erabilera duten espazio urbano eta naturalen ezaugarriak hobetu

1.3.1 Hirian ariketa fisikoa kanpoan egiteko gune beltzen mapa egitea argiztapen eta irisgarritasun hobea behar duten espazioak identifikatzeko.

1.3.2 Jarduera guneetan eta kirol jarduera bereziak antolatzen diren guneetan sexu bientzako komunak eta aldagelak egotea bermatu.

1.4 Diru-laguntzetan emakume eta gizonen berdintasuna bermatzea 4/2005 emakume eta gizonen berdintasunerako Legearen 25 Artikuluari jarraikiz

1.4.1 Eskola kirolerako diru-laguntzen oinarrietan berdintasuneko irizpide berriak sartu (I Eranskina)

1.4.1.1 Eskola kiroleko teknikarien atalean begiraleek hezkidetzan formakuntza izatea baloratu, eskola kiroleko heziketa gaiekin zerikusia duten planteamenduetan.

1.4.1.2 Kirol elkarteei sexu bientzako eskaintza egitea eskatzea eskola kiroleko programan parte-hartzeko irizpide gisa.

1.4.1.3 Entitateek aurkeztu beharreko memorietan ondorengo aspektuak eskatu:

- Partaide kopurua sexuaren arabera sustapen zein lehiaketa jardueretan.
- Sustapeneko zein lehiaketako jardueretan gastatutako diru-kopurua.
- Neska eta mutilei esleitutako begiraleen formazioa.
- Jarduera bakoitzari esleitutako ordutegiak eta instalazioak

1.4.1.4 Kirol-proiektua duten ikastetxeen balorazioan, aipatu proiektuak programan emakumeen partaidetza sustatzeko egingo diren ekintzak atal batean zehaztea eskatu.

1.4.2 II Eranskinaren bidez diru-laguntza jasotzen duten elkarteetan eta instalazioen erabilerarako hitzarmen eta kudeapenerako lagapenetan emakumeekiko diskriminazio egoerak erazi

1.4.2.1 Elkarrekin artekari izan sexu bakoitzari entrenamendu eta partidetarako esleitzen zaizkion ordutegi eta instalazioen banaketan.

1.4.2.2 Gastuen zerrenda zehatza eskatu, kontzeptu, kategoria eta sexuaren arabera (aurrekontuaren genero eragina).

1.4.2.3 Elkarreak norbere egituran emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako ekintzei buruz informazioa eskatu, batez ere emakumeei esleitutako baliabide ekonomiko eta materialen, eta giza baliabideen banaketari dagokionez.

1.4.3 Jarduera berezien antolaketarako ematen diren diru-laguntzen bidez emakume eta gizonen berdintasuna sustatu (III Eranskina)

1.4.3.1 Entitateei ekintzan emakume eta gizonen partaidetzaren aurreikuspena aurkeztea eskatu, kirolari, ikusle, boluntario, azpikontratutako langile, teknikari, epaile edo antolatzaile badira ere.

1.4.3.2 Diru-laguntza jasotzen duten jardueretan betebeharra izatea berdintasunean oinarritutako hizkuntza erabiltzea eta estereotiporik gabeko irudi pluralak erabiltzea jardueren hedapenean eta publizitatean.

1.5 KUPen dokumentuetan eta hedapen materialetan hizkuntza eta irudien erabilpen ez sexista bermatu

- 1.5.1 Beharrezkotzat jotzen diren testuak zein irudiak aldatu Donostia Kiroleko dokumentuetan.
- 1.5.2 KUP osorako komunikazio ez sexista irizpide homogeneoa ezarri.

2 PARTAIDETZA KIROLA

- 2.1. KUPek antolatzen dituen ekintzetan parte-hartzen duten pertsonen gogobetetasun maila handitu eskaintza beraien beharretara egokitzeko, *2007-2013 Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoan* esaten den moduan.
- 2.1.1 Partaideen gogobetetasun mailaren ebaluazioa formalizatu
 - 2.1.2 Kirol ekintzetan emakume gazteen partaidetza sustatu kirol eskaintza alternatiboa edota haien beharretara egokitutako kirol eskaintza eginez (aldez aurretik beharrak antzeman).
 - 2.1.3 Kiroldegietara sarrera orduaren eta sexuaren arabera urtero aztertu, eskaintza erabiltzaileen beharretara egokitzeko.
 - 2.1.4 BIS 1.3.1 (Kirol espazioak)
 - 2.1.5 BIS 1.3.2 (Kirol espazioak)

3 ESKOLA KIROLA

3.1. Eskola kiroleko arreta eta kudeapen egituretan berdintasuna sustatu

- 3.1.1. BIS 1.4.1.1 (Diru-laguntzak)
- 3.1.2. BIS 1.4.1.2 (Diru-laguntzak)
- 3.1.3. BIS 1.4.1.3 (Diru-laguntzak)
- 3.1.4. BIS 1.4.1.4 (Diru-laguntzak)

3.2. Nesken partaidetza sustatzeko eta kirol-uztea ekiditeko erreferenteak erabili⁷³

- 3.2.1. Ikasgeletan Donostian egiten diren kiroletako goi-mailako emakume kirolariekin edo errendimenduko kirolariekin (eredu adituak eta gertuko ereduak) elkarriketak antolatu (ikastetxe ezberdinek saioak batera egin ditzakete).
- 3.2.2. Emakumeen taldeei emakume entrenatzaileak esleitzea sustatu eta baloratu.

3.3. Begiraleen profesionalizazio prozesu bat abian jartzea, formakuntza duten langileak kontratatuz edo egun daudenei formakuntza eskainiz

3.4. Gurasoak sentibilizatu seme-alaben kirol esperientzian gurasoen inplikazioak duen garrantziaren gainean

- 3.4.1. Gurasoak sentibilizatu bete beharko luketen funtzioaren gainean. Kirol jardueretako jokabidearen arauen dekalogoaz azaltzen duen liburuxka bat diseinatu eta bertan gurasoak eredu direla azpimarratu eta semeen zein alaben kirol jardueran laguntza emateak duen garrantzia aipatu.

⁷³ Halaber garrantzitsua da Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako neskei ikasketak eta kirola egitea bateragarriak direla sinestaraztea.

4 ERRENDIMENDUKO KIROLA

4.1. Elkartean emakumeekiko diskriminazio egoerak erazi

- 4.1.1. BIS 1.4.1.2 (Diru-laguntzak)
- 4.1.2. BIS 1.4.2.1 (Diru-laguntzak-Instalazioak)
- 4.1.3. BIS 1.4.2.2 (Diru-laguntzak)
- 4.1.4. BIS 1.4.2.3 (Diru-laguntzak)
- 4.1.5. BIS 1.4.3.1 (Diru-laguntzak)

4.2. Donostiako errendimenduko emakume kirolariak ezagutzera eman

- 4.2.1. Udalak diru-laguntzak ematen dizkieten toki komunikabideetan emakumeen kirol-lorpenak eta esperientzia zabaltzen jarraitu.
- 4.2.2. BIS 3.2.1 (Talde-elkarrizketak ikastetxeetan).

5 GOI MAILAKO KIROLA

5.1 Instalazioen eta ordutegien esleipenean zein instalazioen erabilpenean (udal instalazioa zein besteen kudeapenerako akordioetan) emakume eta gizonen berdintasuna bermatzea, emakume kirolarien entrenamendu eta partidetako beharrak kontuan hartuz.

5.1.1 BIS 1.4.2.1 (Diru-laguntzak-Instalazioak)

5.2 Hiriko goi-mailako emakume kirolariak ezagutzera eman hauen irudia zabaltzeko eta beste kirolari batzuentzat eredu izan ahal daitezen

5.2.1 BIS 3.2.1 (Talde-elkarrizketak ikastetxeetan)

5.2.2 BIS 4.1.1 (Toki komunikabideetan presentzia)

5.2.3 Udalak erabiltzen dituen ohiko komunikazio kanalak erabili goi-mailako emakume kirolarien berri emateko (autobusetako pantailak, autobus geltokietako markesinak, etab.).

5.2.4 Goi-mailako emakume kirolariak gonbidatu sari banaketa ekitaldietara edo antzeko kirol jardueretara, eta horietan protagonismoa eskaini.

6 KIROL JARDUERAK

6.1 Hirian antolatzen diren kirol jardueretan emakumeen partaidetza sustatu

- 6.1.1 BIS 1.3.1 (Kirol espazioak)
- 6.1.2 BIS 1.3.2 (Kirol espazioak)
- 6.1.3 BIS 1.4.3.1 (Emakumeen partaidetzaren aurreikuspena, jardueran emakumeen partaidetza –kirolari, antolatzailer, etb.- sustatzeko hartutako neurriak barne.
- 6.1.4 1.4.3.2 (Komunikazio ez sexista)
- 6.1.5 Teknologia berriak aprobeztatu emakumeen interesa sustatzeko kirol jarduerari dagokionez
- 6.1.6 Donostian ospatzen diren kirol jarduerak bereziki urteko liburuxka diseinatu (*San Sebastián Turismok* argitaratzen duenaren antzekoa).

Proiektu honetan eskuzabaltasun osoz beren ekarpenak eginez eta iritziak emanez parte hartu duten pertsona guztiei eskerrik beroenak.



Donostiako Udalarentzat Avento Consultoria S.L. enpresak egindako proiektua.

Proiektuaren koordinatzailea: **Ainhoa Azurmendi**

Dokumentuaren gaineko edozein aipamen edo iradokizun egin nahi izanez gero, bidal dezakezu mezu bat helbide honetara: aazurmendi@aventoconsultoria.com



Sinatua: Ainhoa Azurmendi





www.aventoconsultoria.com

E info@aventoconsultoria.com
www.aventoconsultoria.com

Pokopandegi 11
Oficina 012
20.018 Donostia – San Sebastián

T 943 317 038
F 943 317 048

